



## Herrietako bestak

Urrozen, Igantzin eta Anizen.

### HEZKUNTZA → 10

Ikastetxeetako datuak herriz-herriz

### ETXALAR/SARA → 17

Usategietako besta irailaren 24an

### BIDASOALDEA → 21

Larrialdietako Zerbitzua martxan paratuko dute

### ITUREN → 26

Ikastetxe berria eraikiko du Nafarroako Gobernuak

## LARUN ERABERRITZEKO PROIEKTUA



# Eztabaidaren erdian, Larun

Hiru ardatz dituen proiektua aurkeztu du Pirinio Atlantikoetako Departamentuak. Alde batetik, San Inazio lepoan 500 aparkaleku gehiago sortu nahi dituzte. Horrez gain, oraingo lau trenez gain, bertze bi gehiago paratu nahi dituzte martxan. Azkenik, Larungo tontorra eraberritu nahi dute: mugikortasun arazoak dituztenentzat sarbidea egokitu, pasarela bat egin, terrazak, lo egiteko bagoiak egokitu, harmailak eta jokoak egin... Baina proiektua ez dute denek begi onez ikusi, eta Saran, Larrun Ez Hunki kolektiboa sortu dute.

**ERREPORTAJEA → 3-5**



### Piriniotar arrazako behi-aziendaren lehiaketa-enkantea Elizondon

Hainbat ganadutegitako aziendak bilduko dira irailaren 23an eta 24an Elizondoko Merkatu Plaza inguruan eginen den lehiaketa-enkante nazionalan.

→ 35

### BERTSOLARITZA → 31

### Txapelketako Nagusiko final-laurdena Leitzaan

Agin Laburu, Iñaki Apalategi, Julio Soto, Oihana Bartra, Oihana Iguaran eta Unai Agirre ariko dira bertsotan, 17:00etan kiroldegian hasiko den saioan.

### ZOKKETAK → 25



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58**ra edo idatzi **info@ttipi.eus** helbidera.

ALTZARIAK ETA  
DEKORAZIOA

**AMETS**

# KOLTXOI ADIMENDUN BERRIAK

ETORRI ETA PROBA EZAZU!!



mueblesamets.com



KOLTXOIA



PULTSERA



APP

Sastrin Kalea 2,3,4 Bera (Nafarroa) | 948 630 537 | mueblesamets.com | amets@mueblesamets.com



ES 025

# BEROPEL

egurrezko pelleta

ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com

www.echevestehermanos.com



GIZARTEA → LARUN ERABERRITZEKO PROIEKTUA

# Arrangura Larunen eta inguruan egin nahi duten proiektuarekin

Pirinio Atlantikoetako Departamentuak Larun eraberritu nahi du

Hiru ardatz dituen proiektua aurkeztu du Pirinio Atlantikoetako Departamentuak. Alde batetik, San Inazio lepoan turistentzako 500 aparkale-

ku gehiago sortu nahi dituzte. Horrez gain, oraingo lau trenez gain, bertze bi gehiago paratu nahi dituzte martxan, eta azkenik, Larungo tontorra eraberritu nahi dute. Baina ez dute denek proiektua begi onez ikusi, eta Saran, Larrun Ez Hunki kolektiboa sortu dute.



## G. PIKABEA

Erearoaz geroztiko hilabeteak mugituak izaten ari dira Sara aldean, eta Larungo kaskoan eta inguruan egin nahi duten proiektua da eztabaidaren gibelean dagoena. Harrabots handia sortu du Pirinio Atlantikoetako Departamentuak aurkeztu duen *La Rhune 2020* egitasmoak. Berea da Larungo trena, eta enkante bidez EPSA enpresak kudeatzen du.

Hiru ardatz ditu Sara, Bera, Urruña eta Azkaineko lurak ukituko lituzkeen *La Rhune 2020* egitasmoak. Alde batetik, Larunerako trena ateratzen den tokian, Sarako San Inazio lepoan, 500 aparkaleku gehiago sortu nahi dituzte.

Bertzetik, orain dauden lau trenez gain, bertze bi tren berri gehitu nahi dituzte. Eta azkenik, Larungo tontorra ere eraberritu nahi dute: mugikortasun arazoak dituztenentzat sarbidea berri, zaldaina edo pasarela bat egin, terrazak, lo egiteko bagoiak egokitu, harmailak eta jokoak egin...

Proiektuak, ordea, aldeko eta kontrako iritzirik piztu ditu. Batzuentzat «egokitzapen plan polita» dena, bertzeentzat, «operazio turistiko komertzial handi bat da».

Jean Jacques Lasserre Pirinio Atlantikoetako Departamentuko presidentearen arabera, proiektu honekin «euskaralurren gaineko balkoi bat eskaini nahi dugu». Ez omen dute «negozio bolumena edo bisitak bikoiztea nahi. Kalitatea mantendu nahi dugu, ingurunea zainduz eta emozioa sortuz». Erran duenez, «bisitari ugari dauden garaietan aparkalekuak falta dira, eta Larunera trenez joaten

den bisitariarentzat modu atsegingarrian denbora emateko tokiak ere falta dira». Eta horri erantzun nahi diote 36 milioi euroko egitasmo honekin (zergak kontuan hartu gabe).

## LARRUN EZ HUNKI AURKA

Herritarrekin biltzarrek, ingurumenaren alde ari diren taldeekin eta arduradun politikoekin bilkurak, prentsaurrekoa... Egitasmoaren kontra Saran sortu den Larrun Ez

Hunki kolektibotik argi mintzatu dira: «proiektuari hastapenetik ezetz erran diogu». Prentsa bidez Larunen egin nahi denaren berri ukan zutenetik, ez da gelditu kolektiboa. Halaxe baieztatu digu Sarako Ellande Alfaro taldeko kideak: «jendeak Larunen zerbait egin nahi zela aipatzen zuen, baina zer zen zuzen inork ez zekien eta erearo hastapenean prentsaarekin baterajakin genuen». Ho-



Gaur egun ibiltzen diren lau trenez gain, bertze bi tren gehiago paratu nahi ditu Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak Larunen.

ri leporatu dio Departamentuari: «horrelako proiektu haundi batek nolaz ez du izan konzertaziorik tokiko jendearekin eta langileekin, lur horietan bizi direnekin eta hautetsiekin?». Eredu babestua da Larun, eta Europako Babestutako Tokiak biltzen dituen Natura 2000 Sarearen barne dago. Alfarok erran digunez, «egitura honetan ere ez da aipamenik izan». Kritika Sarako auzapezari ere egin dio: «uste dugu bazuela proiektuaren berri aspalditik».

#### IKUSMOLDE ANITZ

Larrun Ez Hunki kolektiboak proiektu «osoari» ezetz erran badio ere, Battit Laborde Sarako auzapezari «baitaezpadakoa» iruditzen zaio Larungo trenaren inguruan zerbait egitea, «lanerako trensa horrek segitzea nahi badugu, dirua engaitu behar da. 1924an tren muntatu zutelarik, ez zuten artzainak upatze eman. Lanerako tresna bat da, 30 bat langile ditu, eta behingoan tresna publiko batena da, ez enpresa pribatu batena».

Onartu digu, proiektuak dituen hiru zatien inguruan, «kaskoan egin nahi den zatiak ekartzen ahal duela eztabaida, baina proiektuaren gainera ko zatia baitaezpadakoa da». Bere irudiko, «ez da utzi behar atrakzio-parke haundi baten egiten. Jendea ez da atrakzioarentzat joaten Larunera, bistarentzat joaten da». Ez omen du interesik ikusten atrakzio bat egiteko, «ez da leku egokia». Baina «trenean upatzen den jendea errezibitzeko zerbait egin behar dela» us-

## Larrun Ez Hunki

### Mendia babesteko akordioa

Aste honetan egin du Larrun Ez Hunki kolektiboak bere azken biltzarra Saran eta hor aurkeztu du hemendik urte bukaera bitarte egingen duen plangitza. Horren arabera, herriz herri eta interneten jendearen atxikimendua biltzeko kanpaina bat abiatuko dute. Herriko Etxe bakoitzean mozio bat ere emanen dute proiektu hau eztabaidatu dadin eta herritarrei dei berezi bat egingen diete joateko. Larungo kaskora martxa bat ere egingen dute, baita arduradun politikoeekin bilkurak ere.

Baina Larrun Ez Hunki kolektiboak haratago eraman nahi du gaia eta mendiak babesteko hitzarmen bat egin nahi du: «mendia babestu nahi dugu eta horretarako tresna bat adostu». Badiarelako aurrekariak: «orain 20 bat urte Azkainetik Larunera pista egin nahi izan zuten, eta herritarrek geldiarazi zuten. Orain 40 bat urte, berriz, Inazio lepotik bertze errepide bat egin nahi izan zuten. Saratarrek boto bidez ezekoa erran zuten eta bertan behera gelditu zen». Gisa honetako proiektu gehiago etortzen ahal direla iritzita, «behingoz mendia babesteko hitzarmen bat egin behar dugula» dio Alfarok: «landareak, abereak, ondarea, harrespilak, eraikin zahar eta eraikin historikoak... Guztiak babesteko. Hondatze haundi bat gertatzen ari baita».

te du: «komunak, geltokia... Bista batzuekin bal-koina egitea ere polita atzematen dut».

«Sarataren hamarretik bederatzik ez dute bature gutiazirik Larungo kaskoan atrakzio-parke baten muntatzeko», dio auzapezak. Horren harira, behin eta berriz azpimarratu nahi izan du «oraindik ez dela fitsik egina. Ez da diru-iturririk finkaturik, ezta baimenik ere. Diseinu batzuk eginak dira, baina dena abiatzekoa da». Halaxe dio Eric Morvan Pirinio Atlantikoetako prefetak uztailaren 31ko datarekin sinatutako gutunean. Nahiz eta proiektua ere arazoak aurkeztu, prefetak uztail hondarrean proiektu honen inguruan zekiena komunikabideetatik jakin zuela adierazi zuen, eta «ofizialki administrazioari ez zaio inongo baimen eskaerarik egin».

#### BERAN ERE KEZKATUAK

Proiektuak kezka sortu du beratarren artean ere. Josu Iratzoki Berako

alkateak dioen bezala, «Larun mendia hagitz estimatua baita Beran eta jendea arduratua dago». Bere ustez, «hainbertze jende biltzen den tokian dudarik ez da azpiegitura gabeziak ere somatzen direla. Baina non dago muga? 360.000 lagun ez dira aski?». Gaineratu digunez, «irisgarritasun arazoak moldatzea josten dute proiektuaren arazo nagusienetako bat. Arazo hauek moldatzeko mila aukera daude Larunen egin nahi duten balkoi berri horren aitzinetik, ingurunean hagitz ere eragin tikiagoarekin».

#### 70.000 LAGUNETIK 370.000ERA

Prentsatik lortu dituzten diseinuak dira Larrun Ez Hunki kolektiboari kezka sortarazi dietenak. «Segurtasuna eta jendearen harrera bermatzeko beharrezkoak diren berrikuntza eta antolaketen egitearekin ados gara, eta mugikortasun arazoak dituztenentzako sarbideak aspaldi behar zuten egi-



INBERTITZEAREN ALDE

«Ez da utzi behar atrakzio-parke haundi baten egiten, baina trenean upatzen den jendearen errezibitzeko zerbait egitea baitaezpadakoa da».

**Battit LABORDE**  
Sarako auzapeza



GEHIAGOREN BELDUR

«Etekinak haunditzeko proiektu bat da, eta hori agerian uzten du bi tren gehiago emateak. Hori da proiektuaren gakoa».

**Ellande ALFARO**  
Larun Ez Hunki kolektiboaren kidea



BERAN ERE KEZKA

«Dauden arazoak moldatzeko mila aukera daude Larunen egin nahi duten balkoi berri horren aitzinetik, ingurunean hagitz ere eragin tikiagoarekin».

**Josu IRATZOKI**  
Berako alkatea

DATUA

# 36

**MILIOI EUROKO GASTUA**  
izanen du Pirinio  
Atlantikoetako Depar-  
tamentuaren proiektuak,  
zergak gabe.

na». Oroitarazi duenez, «tren ttipiaren egitura guztia zahartua da. Bere garaian, 70.000 jende errebitzeko egina izan zen, eta egun, urteko 370.000 lagun ibiltzen dira. Segurtasuna falta da, eta legalki ere... Jendearen harre-  
ra ere ez da batere ona. Baina horiek enpresak egin beharreko antolaketak dira. Horrek erakusten du ahal bezain etekin haundienak ateratzeko prest garela edozein turismo mota onartzeko».

**BERRIKUNTZA BAINO  
GEHIAGOREN SUSMOA**

Alfaroren irudiko, «berrikuntza da proiektuan aurkezten dutena, baina bertze zerbait gehiago da». Garbi du «etekinak haunditzeko dela, eta hori agerian uzten du bi tren gehiago emateak. Hori da proiektuaren gakoa».

Datuak aipatu dizkigu. Garairik hoberenetan, egunean 4.000 lagunek hartzen dute tren. Kolektiboaren kalkuluen arabera, bi tren gehiagorekin, 6.240 lagun igoko lirake egunero kaskora, oinezkoak kontuan hartu gabe. Ez hori bakarrik. Berak argi du: «jadanik publizitate handia bada tren tikiarekin, eta tren horiek betetzeko asmoarekin atrakzioa sortu nahi dute gainean: zaldaina, hutsare gainean bal-  
koi bat, mazela guztian terrazak, harmailak, lo egiteko bagoiak, xirrixta erraldoia, eskaladagunea, ibilbideak, animazioak... Horiek ez dira aipatzen, baina planoak

ongi begiratu zergo, ohar-tu gara zenbat atrakzio izanen diren. Dena berantolatatu nahi dute».

**MENDIARI BEGIRA**

Mendiari emanen dion «kolpeak» ere arduratzen ditu kolektiboko kideak: «jadanik Larun sobera eraldatu da, eta obra honen egiteak natura eta Larun kaltetuko ditu: zaldaina egiteko pilonak, xirrixta, harmailak eta terrazak egiteko lanak... Bi tren gehiagok beharko dituzten kaskoko kaiaren eta gurutzagunearen haunditzea, obra egiteko pista berria, kamioiak... Horri kaskoan jendea metatzeak dakarren ondorioa gehitu behar zaio: lurraren higadura eta hondatzea, harrespila eta eraikin zaharren desegitea...».

2018an hasi nahi dituzte obrak. Baina hasi baino lehen, proiektua eremu babestuan egin nahi denez, ingurumen mailako inpaktuen gaineko azterketa egin beharko dute. Horrez gain, hainbat entitatek oniritzia eman beharko dute lanak hasi ahal izateko: DREAL Akitania mailako Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza egitura, DDTM Lurralde eta Itsasoko Departamendua, STAP, ARS, CNPN Naturaren Babeserako Kontseilua...

Prefetak uztail hondarreko eskutitzean zioenez, «ingurumenaren aldetik baldintzak betetzen ez dituen proiektuak ezin du baimenik izan Euskal Herriko toki enblematiko honetan zerbait egiteko». Halere, ez dira kolektiboko kideak: «proiektua egin nahi dutenak Departamentuko arduradunak dira, estatuko ordezkariak, eta baimenak ematen dituztenak ere estatuko jendea dira. Baina pentsatu nahi dugu ez dela eginen, ez diegularik utziko», dio Alfarok.

**INAZIO LEPOA ORAIN**



**INAZIO LEPOAN EGIN NAHI DUTEN BERRIKUNTZA**





**Nire txanda**  
Koro IRAZOKI

## Gure Z

**G**ure hizkuntza zahar honen ahozkatze bereziaz, pentsatzen gelditzen naiz batzuetan, eta Z letra zein maiz erabiltzen dugun konturatu naiz.

Ohartu zarete aitzineko esaldi hortan zenbat Z agertzen diren? Irakurri-irakurri berriz, eta ikusiko duzue, halako testu laburrean, 16 aldiz agertzen dela Z letra! Behar bada horregatik izanen da, gaztelaniaz mintzatzerakoan, euskaldunak garela erraz sumatzen zaigula. Hara eredu batzuk: *He comido garbantzos, toma esta mantzana, portzikaso... Bonitos caltzontzillos, Benecol funtziona*... eta gisa huntakoak konturatu gabe ateratzen zaizkigu.

Z letrak in *zafaldi, zerrikeria, zigorra, zorria, zurrunka* eta halakoak ditugu, baina baita bertze hitz eder batzuk ere: zoriona, zintzoa, zerua, ... eta zurup eta zatoa ere... kontxo! eta hain juxtuki zato baten marka *Las tres Z* da!

Euskaldunen ezaugarriak baserria eta euskara omen dira, ba nik Z letra ere gehituko nuke.

«Euskaldunen ezaugarrietara Z letra ere gehituko nuke»

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Alarma faltsua Bartzelonan

**E**tengabe obretan dagoen Sagrada Familia elizaren inguruan sortu da alarma oraingoan. Furgoneta zuria ondoan aparkatua. Barnean zerbait susmagarria badu, nonbait. Inguruko karrikak berehala itxi dituzte mossoek, poliziaiek, guardia zibilek... Sirena soinuak eta kontrolak han-hemen. Baina artezilariek ibilgailua ireki eta baretu dute egoera: «Lasai, ez dago hautetsontzirik barnean».

## Nabarmentzekoak



Javier PEREZ DE AZPEITIA  
Berako piano-jolea

Isidoro Fagoagaren omenez urte osoan Beran egiten ari diren ekitaldien barnean igande honetan kontzertua eskainiko du Kultur Etxean, Miguel Olano tenorearekin batera.



Jose Mari APEZETXEA  
Margolari erratuarra hil da

Baztango Margolariak taldeko sustatzaileetako bat izandakoa, irailaren 3an hil zen bere etxean, Zubietean, 90 urte zituela. Hantxe eskaini du uda honetan bere azken erakusketa ere.



Jon OLAIZOLA  
Txapeldun Amezketan

Amezketan jokatzeko Joxean Tolosa afizionatu mailako pilota txapelketa entzutsuan txapeldun suertatu da lesakarra, finalean Ultzama Peio Etxeberriari 18-16 irabazita.

Atzera begira → 2007-IX-20 • TTIPI-TTAPA 454 zk.



### Etorkinen inguruko datuak eta beraien iritziak duela hamar urte

«Hala beharrez, etxetik urruti» goiburupean, duela hamar urte gure inguruan bizi ziren hainbat etorkin agertu ziren ttipi-ttapa aldizkariko azalean. Barneko erreportajearen, hainbat iritzi eta datu biltzen ziren eta horien artean, titularraren honako hau bildu zen: «Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Leitzaldean kultura ezberdinetatik etorritako ia 2.000 lagun bizi dira gure artean». Bakoitzak bere esperientzia kontatu zuen. Honela, Lucia eta Abrahamek ziotenez, «etorkizunean hara bueltatu nahi dugu, horregatik ez ditugu ekarri seme-alabak. Irabazten dugunarekin ezin dugu».

**ttipi-ttapa**

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 635458 • Faxe (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre Berriemaileak Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Irazoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

### 2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€

Nafarroako  
Gobernua



Gobierno  
de Navarra



Bortzirietako Euskara  
Mankomunitateak  
diruz lagundua



## Kolaborazioak

### Geure burua ezin ezagutu

Pello APEZETXEA

Zazpi mila milioi jende bizi omen da gure planeta honetan. Eta sei mila hikuntza ezberdin erabiltzen dituzte euren artean. Bertze hainbertze erlijio-sinesmen zabalduak ere badira. Hizkuntza kopurua, ordea, ttikitzen hari omen da urtetk urtera. Eta erlijioek antzeko bilakaera ote daramaten ustea aski zabala da.

Normala da galdetzea aldaera horien arrazoiak, bertze hainbat aldaeraz ere egiten ahal den bezala. Garrantzizko adierak baitira, gainera, nahiz eta ez dugun ukatzen ahal garrantzidun aldaera gehiago badirela. Dena den, adimendun izakiak garenaz gero, ohartzen saiatu beharko genuke gure erantzunkizunaz. Izan ere, hainbat aldaera jendeok eraginak dira, ez berez gertatuak. Erraterako, eta zerbait ulergarri samarra aipatzeagatik, uholdeak ugaritzea, tenperatura berotzea, haize-teak indartzea, etabar, klima aldatzearen ondorioztat jotzen ari dira. Eta zerk eragiten du klima aldatzea? Neurri batean, bederen, jendeen ohiturak: industria eta ibilgaigailuen petrolioaren erretzea, adibidez.

Eta hizkuntzak gutitzea bezalako aldaketak? Nazio batzuek bertzeak menezan eduki nahia ezaguna zaigu. Baina horretarako, menperatzeko diren herrien izaera zantpatzea komeni da, hauen ohiturak eta hizkuntza ahulduz eta baztertuz. Eta horretan egiten dute ahalegina menperatzaileek. Ez dugu urrun joan beharrik hori ikusteko euskaldunok, aunitz mendez borrokan ibili baikara, eta gabiltza, gure izaeraren inportantzia handiko den hizkuntza eta kultura defenditzen.

Zoritxarrez, zera gertatzen da aunitzetan, adimendun izanagatik, ez garelako ohartzen, ez garelako oroitzen egiten dugunaz. Baina ezta zer eta nor garenaz ere, eta hori gogoan behar dugu izan, jende eta herri izaten jarraitzekotan.

Triste samarra da hainbatetan entzuten edo sumatzen duguna: bai badugu, bai bagara, diote batzuek. Euskara eta euskal kulturaz, alegia. Ez da, bada, berdin, zer dugun edo zer ez, zer garen edo zer ez? Horrelakoa baita bertze hainbaten ustea. Baina, badakigu zergatik estimatzen dugun, edota estimatzea uzten dugun, gure izaera, gure sinestea, gure hizkuntza?

«Zoritxarrez, zera gertatzen da aunitzetan, adimendun izanagatik, ez garelako ohartzen, ez garelako oroitzen egiten duguna. Baina ezta zer eta nor garenaz ere, eta hori gogoan behar dugu izan, jende eta herri izaten jarraitzekotan».

### Katalanak eta gu

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Kataluniako prozesuak ilusio handia sortu die Euskal Herriko independentistei; Hego Euskal Herrian, kezka handia erregionalistek, eta amorruek, gehienbat, nazionalista espainolei. Azken horiek hamarkadak pasatu dituzte erraten armarik tartean ez bazegoen dena posible zela, baina gezurretan ari zirela demostratu dute independentista katalanek. Euskal Herrian independentzia defendatzen dutenen artean jada ez dago armarik, baina, hala ere, oraingoz, ez da hurbil ikusten Kataluniaren antzeko prozesu bat hastea. Erregionalistek eta nazionalista espainolek bi herrialdeen artean dauden ezberdintasunak azpimarratu nahi izan dituzte azken aldian, euskaldun leial eta zintzoaren irudia hauspotzeko alde batetik -Ocho Apellidos Vascos, Alli Abajo eta azken aldian gogor sustatu dituzten antzeko produktuetan irudikatzen gaituzten bezala-, eta katalanei, berriz, istilutsuen eta leialtasunik gabekoen fama emateko. Duela ez hainbertze urte, Espainian euskaldunak ginen istilutsuak eta pelikulako gaiztoak, eta katalanak, berriz, "nazionalitate historikoen" eduki behar zuten portaeraren eredu. Baina erregionalistek eta nazionalista espainolek arrazoi dute neurri batean; katalanak eta gu ezberdinak gara. Kontua da ze ezberdintasun nabarmendu nahi den. Lurraldetasuna, errate baterako, ez dugu haiek bezala bizi. Euskal Herriaren eta Herrialde Katalanen formulazio nazionalista ez da berdina izan, eta horrek erraztu die burujabetzaren abiapuntua argi zehaztea: Katalunia. Hego Euskal Herrian, ordea, zuzenean gainetik pasatzen dugu pauso hori, deserosoa zaigulako. Ez da argi erraten, baina Iñigo Urkulluri hainbertze dei egiten bazaizkio eta Uxue Barkosi ez, onartzen da independentismoak pentsatzen duela Euskal Autonomia Erkidegoak egin beharko lukeela Kataluniarena bezalako prozesua, "gero etorriko dira nafarrak" pentsamendu abertzale klasiko horrekin, hain emaitza onak eman dituen azken 40 urteotan. Horrez gain, sufritzen dugun asimilazio linguistiko, kultural eta identitarioa Katalunian baino aunitz handiagoa da. Katalunian herri ttiki bateko Junts Pel Siko alkate bati ez zitzaion burutik pasatuko ere hizkuntza katalanaren aldeko plan bat zaborrontzira botatzea, eta hemen halako esperpentoak bizi behar izan ditugu marka abertzale eta euskaltzaleekin aurkezten diren alkateen eskutik. Katalunian, parlamentuko debateetan hizkuntza nagusia katalana da alde handiarekin. Ciudadanoseko eta PPko parlamentariak mintzatu ohi dira gaztelaniaz, baina batzuei, beroaldietan eta modu inprobisatuan ari direnean, katalana ateratzen zaie. Katalunian, agintariak katalanez ematen dituzte prentsurrekoak, eta gero, akaso, galdetu egiten dute ea gaztelaniaz ere egitea nahi duen norbaitek. Horrela, errealitate bat eraikitzen dute: katalanak normaltasuna irudikatzen du, eta gaztelaniaz egitea, berriz, aukeraketa politiko bat da, identitate markatzeko modu bat. Hego Euskal Herrian, ordea, kontrakoa gertatu ohi da. Euskaraz mintzatzea aukeraketa politiko bat izan ohi da, identitate markatzeko modu bat, eta gaztelania, berriz, naturala, baita politikari abertzale aunitzengan ere. Eta, horrek, zaildu egiten du Espainiatik aparteko nazio bat garelako irudikatzea.



## Irakurleak mintzo

### Magia Pirinioetan

Koro IRAZOKI

Gavarnitik abiatu eta lau oreren buruan Bujaruelon ginen. Gure autobusa ere hantxe zegoen. Eta bapatean, autobusetik mahai eta aulki luze batzuk atera zituzten, mantel txuri eta guzti. «Jarri, jarri eta bazkaldu» erran ziguten. Eta hantxe, 2.400 metrotan tranquilki jarrita ia-ia 100 lagunei bazkaltzera eman ziguten: pasta-entsalada eta oilaskoa saltsan (txitxi-pilotak haurrentzat), ondotik sagar tarta eta txanpaina, eta finitzeko kafea eta txupittoa hormarekin.

Ez pentsa catering enpresa bat kontratatua ginuenik, ez. Gertatutakoak magia ematen zuen baina, Miren Amurizak dioen bezala: Ez da magia elkartasuna da.

Elkartasun lana izan zen aitzinetik erosketak egitea, hainbertze janari goxo prestatzea, kafea litroka termoetan sartzea, behar ziren guztiak bildu eta autobusean ematea, detaille ttikienak kontutan hartzea...

Mila esker Agerra mendi taldea eta Mantaleri. Elkartasunean

espezialista batzuk zaretela aspaldian demostratua duzue, baina egia erran, batzuetan badi-rudi magia ere egiten duzuela.

### Agerratik, milesker!

Txaro ZUBIETA (Agerrako auzotarrak)

Bertze behin ere joan dira Agerrako bestak. Hainbat eta hainbat auzotarren lanari esker giro bikainean pasa ditugu aurtengoan ere, ekitaldiz betetako besta hauek.

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi ditugu. Eskerrak modu batera edo bertzera urte joan eta urtea etorri laguntzen diguten guztiei, eskerrak gurekin parte hartzen duten guztiei.

Ortzegunean futbitoarekin hasi eta igandean bingoa eta dantzaldiarekin bukatu diren besta hauetan etengabe musika, dantza, otordu, kirolez gozatzeko aukera izan da eta

## Bota bertsoa

Maddalen AROZENA FRESNEDA (Lesaka)

Doinua: Trumoiak hortzi

Baztan-Bidasoko 30. Bertsopaper lehiaketan aipamena (15-18 urte)



## Maiteminduta

1 Zen izango da erreakzioa ez dut galdu nahi ilusioa Nere buruan sortzen ari den kolorezko istorioa (bis) Gustukoa dut kanpo aldean duzun inperfekzioa barruko perfekzioa zure begien disdira horrek sortzen du(e)n inpresioa.

2 Etortzerakun nere ondora burua joaten zait edonora. Bihotza fuerte, taupadak azkar arnas-behera, arnas gora (bis) Ni totelduta geratu ohi naiz begira zure ahora azkar pasatuz denbora. Orduak minutu ematen du bat dagonean gustora.

3 Hurbiltzean urduritasuna bota b(eh)ar dizut asmakizuna gainetik aspaldu kendu nahi ten karga zakar ta astuna (bis) Lehenengo gauza argi izan zugu bion laguntasuna daukagun ziurtasuna edozer gauza nahiz ta pasata betiko iraungo duna.

4 Begira zuzen begietara eta hurbildu eskuetara. Gu biok batera egoteko eginak ote al gara? (bis) zu nere ipuinean sartu zara ongi etorri hasierara istorio honetara. Amaierarik ez duenaren maitasun ibaietara.

pozzgarria da guretzat urtez urte mantentzen diren besta hauetan jendearen parte hartzea ikustea.

Eta urteak pasatzen direnez...hurrengo urtean 40 urte beteko ditugu. Ez da nolana hikoia!!!

AGERRATIK BIHOTZETZ, MILESKER ETA HURRENGO URTEAN 40 URTEAK OSPATZEKO ELKAR IKUSIKO DUGU!!!



**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)  
 Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**  
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



**Prentsatik bildutakoak**



«Ahalegintzea da kontua, orduak sartzea. Nik hirikoa izanda hona iristea lortu baldin badut, edonork lor dezake herri kiroletan ondo aritzea»

«Ohartu gabe sartu nintzen. Lan horiek erraz egiten ditut, eta neska izatearen berezitasun horrek jendea laguntzeko prest egotea eragin du, nire kasuan»

**Irune IZKUE**  
Elgorriagako aizkolaria  
BERRIA 2017.09.01



«Azken finean, bizi kalitate hobea izateko eta futboleko maila on batean jokatzeko jarraitzeko, niretzat hau izan da aukerarik hoberena, eta ez nuen bitan pentsatu». «Gauzak ongi joaten direnean pozgarria da, baina, ez badira ondo joaten, sufritzen dutenak familiakoak dira. Horregatik, saiatzen naiz haiek ni ahalik eta gutxienetan ikus nazaten gaizki».

**Uxoia BERTIZ**  
Elizondoko futbolaria  
BERRIA 2017.09.09

**11 galdera labur**

**Nor dugu Maider Azkarate?**

Anizen sortu eta bizi den 36 urteko pertsona arrunta naiz.

**Gurasoen lanari segida ematea erabaki duzu...**

Bai, hala da bai. 1993an gurasoek landetxea ireki zuten, eta beraien laguntzen nien, jubilatuzirenean nere gain hartu nuen.

**Zergomendatzen diezu bisitariari?**

Gure zonaldean xoko zoragarriak ditugu, ezagunak diren lekuez gain, hain ezagunak ez diren tokietara ere bidaltzen ditugu, eta bezeroek aunitz eskertzen dute. Gehienak hirietatik datoz, eta hemengo bizi kalitatea aunitz estimatzen dute, horixe da bilatzen dutena.

**Zein da postre goxoak egiteko sekretua?**

Kalitatezko lehengaiak erabilia, kantitateak ongi neurtuta baldin badaude, edozein gisako postre goxoak egin daitezke.

**Gauza berriak ikasi zalea zara?**

Hainbat ikastaro egin ditut, elkarren artean zerikusi handirik ez dutenak. Beti ikasten da zerbaitere, eta lehenago edo beranduago praktikan jartzeko aukera dago.

**Anizko txokorik ederrena?**

Aunitz daude, baina bat aukeratzekotan, Urleiko peñak

erranen nituzke. Ttikitan Anizko lagunekin joaten nintzen, eta arras oroitzen onak ditut.

**Bestetan gozatzeko tarterik izaten duzu?**

Lanak herritarren artean banatzen ditugu, baina besta egiteko ere tartea dago!

**Zein da Anizko besten berezitasuna?**

Haur, gazte eta adinekoen artean sortzen den giroa.

**Zein da bestetatik gehien gustatzen zaizun ekitaldia?**

Su inguruan egiten dugun zingar jatea, bertan sortzen den giroa berexia da

**Zerk egiten zaitu zoriontsu?**

Ingurukoak ongi daudela jakiteak.

**Amets bat?**

Orain arte bezala, gogoz eta ilusioz amesten jarraitzea.



**Maider AZKARATE → Anizko gaztea**

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
TEL: 948 625 474

**okaNe**  
HARATEGIA / URDAITEGIA  
Enaut & Nekane  
Kanttonberri 12 • BERA  
Tfno/Fax: 948 630 018

**BAR Botxo OSTATUA**  
Zalain • BERA • 948 630 052

**KATEA BIKE**  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.  
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak  
2. eskuko bizikletak  
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218  
kateabera@telefonica.net  
ORBEA CONDA SCOTT LOOK

**MARGO IKASTAROA 2017-18**  
Ez da beharrezkoa esperientzia izatea  
GAZTEAK (9 urtetik aurrera) HELDUAK (adin guztiak)  
LESACA Astelehena > Gazteak 17:30-19:00 | Helduak 19:00-20:30  
ELIZONDO Asteartea > Gazteak 17:00-18:30 | Helduak 19:00-21:00  
DONTZEBE Asteazkena > Gazteak 15:00-16:30 | Helduak 16:30-18:00  
ITUREN Ortzeguna > Gazteak 17:00-18:30  
BERA Ortziralea > Gazteak 16:30-18:00 | Helduak 18:00-19:30  
ARKUPEAK-eko bazkideak PREZIO BEREZIA  
Iciar Mikelperizena T. (+34) 661 010 416  
ELGORRIAGAKO BALNEARIOA MATERIAL GUZTIA BARNE  
Margotu zure koadroa ordu 1'erdiko bi saiotan METODO BERRIA  
Asteazkena/Ortzeguna 12:00-13:30 | Helduak 19:00-20:30

**aterpe**  
albergea jatetxea ostatua  
T. 948 634 179  
ARANTZA  
www.arantza.net  
ene! pasa! jauterak!

## HEZKUNTZA

IKASTETXEETAKO DATUAK → 2017/2018 IKASTURTEA

# Eskualdeko 5.621 ikaslek hasi dute ikasturtea

## TTIPI-TTAPA

lax baino 105 ikasle gehiagok eman diote hasiera ikasturteari Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealdea eta Xareta.

Eredui dagokienez, euskarazko D ereduak hedatzen segitzen du eta Sara eta Senperen izan

ezik, gainerako ikastetxeetan eredurik hautatuena da. Hala ere, Saran alde ttikia dago elebidunean (frantsesez eta euskaraz) eta euskaraz bakarrik ari direnen artean. Senperen, ordea, frantsesez bakarrik eta elebidunean ari direnak dira gehienak.

## BIGARREN HEZKUNTZA / KOLEGIOA

	BIGARREN HEZKUNTZA		
	A ereduak	B ereduak	D ereduak
<b>BAZTAN</b>	<b>21</b>	<b>0</b>	<b>329</b>
Lekaroz	21		329
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>21</b>	<b>28</b>	<b>315</b>
Arantza IP			14
Bera (Toki Ona) <sup>(2)</sup>	21	28	251
Bera (Labiaga Ikastola)			50
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>206</b>
Goizueta			16
Leitza (Amazabal)			190
<b>MALERREKA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>203</b>
Doneztebe (Mendaur)			203
<b>XARETA</b>	<b>146</b>	<b>101</b>	<b>8</b>
Senpere (Arretxea)	146	101	
Urdazubi-Zugarramurdi			8
<b>GUZTIRA</b>	<b>188</b>	<b>129</b>	<b>1.061</b>

2017-2018 Guztira: 1.378



2016-2017 Guztira: 1.284

% 6,82

<sup>(2)</sup> Behin behineko datuak dira.

## HELDUEN HEZKUNTZA

	HELDUEN HEZKUNTZA		
	A ereduak	B ereduak	D ereduak
<b>BAZTAN</b>	<b>15</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Lekaroz	15		
<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

## BATXILERGOA

	BATXILERGOA		
	A ereduak	B ereduak	D ereduak
<b>BAZTAN</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>130</b>
Lekaroz			130
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>118</b>
Bera (Toki Ona) <sup>(2)</sup>			118
<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>64</b>
Leitza (Amazabal)			64
<b>GUZTIRA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>312</b>

2017-2018 Guztira: 312



2016-2017 Guztira: 328

- % 5,12

## HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A ereduak	B ereduak	D ereduak	A ereduak	B ereduak	D ereduak
<b>BAZTAN</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>199</b>	<b>6</b>	<b>0</b>	<b>504</b>
Almandoz IP			1			5
Amaiur IP			6			24
Arizkun IP			9			23
Arraioz IP			10			14
Azpilkueta IP			8			3
Baztan Ikastola			60			138
Elizondo IP			61	6		166
Erratzu IP			15			22
Gartzain IP			6			14
Irurita IP			13			52
Lekaroz IP			6			1
Oronoz IP			3			28
Ziga IP			1			14

<b>BERTIZARANA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>26</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>37</b>
Legasa IP			13			22
Narbarte IP			13			15

<b>BORTZIRIAK</b>	<b>17</b>	<b>12</b>	<b>292</b>	<b>25</b>	<b>28</b>	<b>502</b>
Arantza IP			26			36
Bera (Ricardo Baroja)			75			138
Bera (Labiaga Ikastola)			52			98
Bera (Jesusen Bihotza)	17	12	3	25	28	
Etxalar IP			29			50
Igantzi IP			18			36
Lesaka (Irain IP)			56 <sup>(1)</sup>			76
Lesaka (Tantirumairu)			33 <sup>(1)</sup>			68

<sup>(1)</sup> 2 urtekoak barne

<b>LEITZALDEA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>151</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>254</b>
Areso IP			10			18
Goizueta IP			17			40
Leitza IP (Erleta)			124			196

<b>MALERREKA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>146</b>	<b>10</b>	<b>0</b>	<b>337</b>
Beintza-Labaien IP			2			4
Doneztebe (S. Migel)			93	10		216
Ituren IP			24			48
Saldias IP			3			4
Sunbilla IP			24			65

<b>XARETA</b>	<b>82</b>	<b>160</b>	<b>99</b>	<b>187</b>	<b>236</b>	<b>168</b>
Sara (Publikoa)	3	14		2	13	
Sara (St. Joseph)		38		14	64	
Sara (Olhain Ikastola)			44			76
Senpere (Publikoa)	20	71		71	102	
Senpere (Amotz publ.)	28			57		
Senpere (Zaldubi ikas.)			46			57
Senpere (St. Joseph)	31	37		43	57	
Urdazubi-Zugarramurdi			9			35

\* Lehen Hezkuntzako datuak 6-11 urte artekoak dira Sara eta Senperen.

<b>GUZTIRA</b>	<b>99</b>	<b>172</b>	<b>913</b>	<b>228</b>	<b>264</b>	<b>1.802</b>
----------------	-----------	------------	------------	------------	------------	--------------

## HEZIKETA ZIKLOAK

	HEZIKETA ZIKLOAK			
	LHB	OLH	Erdi M.	Goi M.
<b>BAZTAN</b>	<b>2</b>	<b>23</b>	<b>57</b>	<b>56</b>
Elizondo <sup>(2)</sup>	2	0	22	1
Lekaroz <sup>(2)</sup>				25
<b>BORTZIRIAK</b>	<b>0</b>	<b>46</b>	<b>0</b>	<b>44</b>
Bera (Toki Ona) <sup>(2)</sup>		46		44
<b>XARETA</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>210</b>
Senpere (Laborantza)				210
<b>GUZTIRA</b>	<b>2</b>	<b>69</b>	<b>57</b>	<b>310</b>

2017-2018 Guztira: 438



2016-2017 Guztira: 427

% 2,51

## HAUR HEZKUNTZA

2017-2018: 1.184



2016-2017: 1.168

% 1,35

## LEHEN HEZKUNTZA

2017-2018: 2.294



2016-2017: 2.309

- % 0,65

## HIZKUNTZA EREDUAK

A ereduak	Erdara hutsean
B ereduak	Mistoa
D ereduak	Euskara hutsean

# IGANTZIKO BESTAK

IRAILAREN 23, 24, 28, 29, 30 ETA URRIAREN 1A

## IRAILAK 23, LARUNBATA

**09:00** Gosaria Ziobin. **09:30** Plater tiroketa Ziobin. **12:00** Herritarren arteko pilota txapelketako finalerdiak eta finala. **17:00** Kick boxing erakustaldia. **20:00** Igantziko dantza taldearen emanaldia. **22:00** Bakarriketa afaria Baratzondon.

## IRAILAK 24, IGANDEA

**10:00** Karrika buelta herriko txistulariekin. **12:00** XIV. Gazta lehiaketa eta ardo dastaketa frontoian. **18:30** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin, Iñaki eta Joxe trikitalariek lagunduta. **19:00** Gazta eta opil dastaketa.

## IRAILAK 28, ORTZEGUNA

**16:30** Goitibehera txapelketa. **20:00** Altxaferoa. **Ondotik** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin Elutxa txarangak alaitua. **00:00-03:00** Elutxa txaranga herrian barrena.



## IRAILAK 29, ORTZIRALEA

**09:30** Karrika buelta herriko txistulariekin. **10:00** Karrika buelta herriko dantzari, ezpata-dantzari eta txistulariekin. **11:30** Meza nagusia herriko abesbatzak kantatua. **Ondotik** Bandera arbola doinuari dagokion ikurrin agurra eta herriko ezpata-dantzarien eta dantzarien saioa plazan. **17:00** Dantza luzea plazan. **17:30** Bertso pilota: Enaitz Telletxea eta Jon Olaizola, Oian Canabal eta Joseba Aldaveren aurka, Lizaso eta Zubeldia bertsolariekin. **Ondotik** muxikoak Foru plazan. **00:00-04:00** Tirry&Teri.



## IRAILAK 30, LARUNBATA

**10:00** Karrika buelta herriko txistulariekin. **12:00** Karrika buelta kankailu eta buruhaundiekin gaiteroek lagunduta. **12:30** Toka txapelketa frontoian. **12:30** Haurrentzako jokoak frontoian. **17:30** Nafarroako III. Mailako aizkolari txapelketako finala, sokatira desafioa eta herritarren arteko desafioa. **21:00-23:00/00:00-01:00** Elektropatxaranga. **00:00** Betizuak zezen plazan Elektropatxaranga alaituta. **01:00-04:30** Laiotz taldea.

## URRIAK 1, IGANDEA

**10:00** Karrika buelta gaiteroekin. **11:00** Haurrentzako animaliak zezen plazan. **10:00-12:00/15:00-18:00** Haurrentzako puzgarriak frontoian. **12:00** Betizuak zezen plazan Elutxa txarangak alaituta. **14:00** Haurren herri bazkaria zentroan. **14:00** Herri bazkaria Baratzondon, Sustrai Colina eta Andoni Egaña bertsolariekin, Elutxa txarangak lagunduta. **19:00** Zartagin jaurtiketa. **21:00** Txamukos. **Ondotik** karretilla lasterketa. **00:00** Gaixoa ni.

GORA SAN MIGELAK!  
**borzuzrud**  
IMPRESA - HOPISTEGIA  
948 631 521  
material guztietan inprimatzen dugu  
hamisetak / oparitzeko artikulua

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/ttppi.eu

ONGI PASA BESTAKI! Ingurumen Zerbitzuak  
**ezpata**  
• PINADIEN BALORAZIOAK  
• LUR NEURKETAK  
• KARTOGRAFIA, PLANOAK ...  
• INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN  
ANDRES ZELAIETA ELTZAUDIA  
IGANTZI - LEGASA · T. 606 31 45 26  
andreszelaieta@hotmail.com

**Carlos Txoperena**  
mendi garbiketak eta landaketak  
**ITXITURAK**  
Ongi pasa Sanmigelak!  
Tel: 948 637 477  
637 466 124  
LESKA

**OKILA**  
zurgindegia  
• tarimak, leihoak, atek, eskailerak...  
• obretako lanak orokorrean  
Lander Sein  
Mikel Arburua  
On egin janak eta kalterik ez edanak!  
607 88 39 68 · mikel@okila.eu  
Piedadeko auzoa, 32 · IGANTZI

ONGI PASA BESTAK!

**Bidasoa**  
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA  
**24** ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

ONGI PASA BESTAK!

**TALOTXA**  
IGANTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 IGANTZI  
Tel. 608.202.126 / 618.901.810

**Canon Bidasoa**

- Multifunzioen konpontze eta salmenta.
- Ordenagailuen konpontze eta salmenta.
- Zerbitzu teknikoak. **Ongi pasa bestak!!**
- Kontsumibleak.

Santiago kalea 7, Irun info@cbc-bidasoa.es  
943 631818

**ZUMARBEL**  
creaciones metálicas  
Igantzi (Navarra)  
948 63 74 11  
ONGI PASA BESTAK

**Lehen A.T.M. S.A**  
Berrizaun 25,  
31790 IGANTZI  
T. 948 63 74 11  
@ info@zumarbel.es  
www.zumarbel.es

# IGANTZIKO BESTAK

IRAILAREN 23, 24, 28, 29, 30  
ETA URRIAREN 1A



**Joseba BERTIZ**  
Igantziko gaztea

«Herri ttikia izateko, dantzari aunitz gara, baina mutikoetan ni naiz zaharrena»

«Herriko gauzetan parte hartzea gustuko duen 20 urteko mutiko igantziarra naiz». Halaxe aurkeztu digu Joseba Bertizek bere burua, eta horrez gain, «saltseroa eta alaia» dela ere aitortu digu. Denbora libre duenean ez da geldirik egoten den horietakoa, eta bere harat honatak dira horren lekuko. Goi Mailako Ziklo bat ikasten ari da, baina dantza, kirola eta musika dira bere afizio nagusiak, hirurak ere «ttiki-ttikitatik egin ditudanak».

## MUSIKA, KIROLA ETA DANTZA

Musika ikasten sei urterekin hasi omen zen: «perkusioa ikasten hasi nintzen eta hamabi urtez ikasten ibili ondotik, orain dela urte bat eskas gelditu nintzen ikasten». Gutti dira gaur egun probatu ez dituen perkusioak: «perkusioaren arloan ahal den guztia jotzen dut». Hala ere, badu bat guztien artean bereziki maite duena: «gehien gustatzen zaidana bateria da. Edozein arrazoigatik estresatua baldin banago, bateria jo eta dena ahazten dut».

«Perkusioaren arloan ahal den guztia jotzen dut, baina bateria da gehien gustatzen zaidana. Bateria jo eta dena ahazten dut».

Elutxa txarangan ere jotzen du duela lau bat urtetatik eta hemen ere perkusioa da bere musika-tresna. Baina horrez gain, kontatu digunez, «Elizondoko gaiteroei laguntzen» ere ibiltzen da «eta zortea baldin badut, talderen batetik batera jotzeko deitzen didate».

Kirola egitea eta lagunekin egotea ere atsegin du denbora libre duenean, eta Beti Gazte taldean futboleko ibilitakoa omen da: «orain ezin dut futboleko jokatu, lesio bat izan dudalako». Baina futboleko bakarrik ez. Bertze kiroletan ere moldatzen da.

«Bortz urte edo igual guttiago nituenetik ari naiz dantzan. Familian, arreba ere dantzaria da eta amari ere gustatzen zaio».

Herriko dantza taldean ere mutiko kozkorra zela hasi zen: «bortz urte edo igual guttiago nituenetik ari naiz», dio. «Betidanik gustatu izan zait. Familian, arreba ere dantzaria da, amari ere gustatzen zaio... Euren aldetik hasi nintzen eta gustura segitzen dut. Herri ttikia izateko dantzari aunitz gara Igantzin». Halere, aitortu digu dantza taldean ari

**LA VILLA**  
Ostatua - Jantetxea - Igantzi

MENU BEREZIAK  
PLATER KONBINATUAK  
BOKATAK

**Ongi pasa bestak!**

Karrika Nagusia, 14 - IGANTZI  
ERRESERBAK: T. 948 637 290

den mutilik zaharrena bera dela «ez dakit zergatik, baina ni gustura aritzen naiz». Herriko besten atarian, urtero bezala herriko dantza taldeak eginen duen jaialdian ere parte hartuko du Bertizek, baina baita bestetako egun haundian ere, «San Migel Egunean Ezpatadantzari bezala ere ateratzen naiz».

### LANA ETA BESTA

Bestetan lana egitea ere tokatuko zaio: «bi egunez txarangarekin jotzen dugu. Bezperan, txupinazoaren ondotik kalejira egiten dugu, eta gauez musikarik ez bada, goizaldera arte ere jo izan dugu, aspertu arte. Herri bazkari egunean ere jotzen dugu».

Baina hori ez da aitzakia besta egin gabe gelditzeko: «ahal bada besta, baina kontrolatuta», onartu baitu. Baina lana egitea tokatuagatik, herri bazkari eguna da bestetan «gehien disfrutatzen dudana eguna: gazteen eguna bezala da, goiz-goizetik gosaltzeko biltzen gara, bakilletara joaten gara, gero herri bazkaria dugu... Egun konpletoa da». Ekitaldirik gustukoena, berriz, bakillak. Nahiz eta, bere garaian sustoa hartutakoa den: «batean harrapatu eta kolpe kozkorra hartu nuen, baina urte batzuetan barrenean ibiliz, aunitz disfrutatu izan dut».

### GAZTEAK GOGOTSU

Dantzan, musika joz, herri kiroletan... «Bestetako ekitaldi guztietan parte hartzeko prest egoten naiz eta behar denean laguntzen saiatzen naiz». Berak bezala, herriko gazteek ere bestak «gogoz» hartzen dituztela uste du, eta horren seinale gazteen parte-hartzea: «aurten pilota txapelketa antolatu eta jende gazte aunitz aritu gara. Herri kiroletan ere gero eta gehiago animatzen gara». Txoznaren ardura ere gazteek dute eta herri kirolen eta bakilletako ikuskizunaren gastuak ere euren gain hartzen dituzte gazteek. Beraz, bada bestetarako gogoia eta ilusioa. Are gehiago, Bertizek umoretsu aipatu digu «akaso bestetan egun bat gehiago ez litzatekeela gaizki etorriko».



**AINHOA ESTETIKA**  
661 432 630  
Estoganaga 4 behea • IGANTZI

BESTETARAKO PRESTATU  
**10%** deskontua  
BESTAK DISFRUTATU

Ride berriak  
Iparraldeko abentura parkerik handiena  
Haurrentzako gune berriak

Besta zoriontsu eta alaiak pasa

**Turi Sarri LAND**  
T. 948 928 922 • www.irrisarriland.es • Igantzi, NAVARRA



**Igantziako Udalak besta onak opa dizkizue  
igantziar eta bisitari guztiei**

## BORTZIRIAK

GIZARTEA → IRAILAREN 29AN ETA 30EAN BERA KO KULTUR ETXEAN

# Haur eleaniztunen hizkuntzaren garapen atipikoaren lan ildoak aztergai

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Udako Ikastaroen baitan

## TTIPI-TTAPA

Aurten Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Udako Ikastaroen barne, *Haur elebidunen (euskara/gaztelania/frantsesa) eta eleaniztunen hizkuntzaren garapen atipikoaren inguruko lan ildoak* izeneko ikastaroa eskainiko du. Ikastaroa hirugarrenez antolatu da. Aitzineko bi urteetan Lesakan izan da, baina aurten Berako Kultur Etxean izanen da, datorren irailaren 29an eta 30ean. Izen-ematea zabalik dago irailaren 27ra bitarte.

Hezkuntzaren edo osasunaren arloko profesionalen edota iker-tzaileen eskutik (Sonia Aristregui, Andoni Barreña, Jaione Cardas, Belen Compains, Ricar-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bi urtez Lesakan egin den haur garapenaren inguruko ikastaroa aurten Beran izanen da.

do Coronado, Nekane Galparsoro, Felix Etxeberria, Maria Eugenia Minguez Marie Pourquie eta Ana Ramudo) lan-tegi eta hitzaldi aski interesgarriak eskainiko dira.

Zalantzarik gabe gai interesgarria da bizi garen eskualdean garapen atipikoa duten haurren familientzako nahiz haiekin egunerokoan lan egiten duten profesionalentzako, bereziki hezkuntza arlokoentzako. Aitzineko urteetako

ikastaroaren emaitza izan da dagoeneko martxan den mugaz gaindiko lan talde bat, arlo ezberdinetako profesionalak, familiak, elkarteak eta ikerlariak biltzen dituen. Hain zuzen, Lesaka Hezkuntza Garapena lantalde horren aurkezpena ere eginen dute ikastaroan.

Aurten Bortziritako Euskara Mankomunitateak ikastaroaren finantzaziorako diru laguntza txiki bat ere eman du.

## Nola erabili biohondakinen konposta?

*Nola erabili biohondakinen konposta?* ikastaroa ere eskainiko du NUPek irailaren 30ean Berako Kultur Etxean. Euskaraz emanen den 10 euroko ikastaroan izen-emateko epea irailaren 28an bukatuko da eta 30 euro ordaindu behar da. Etxean landare eta konpostarekin esperimentatzeko materialak banatuko dira matrikulatutakoaren artean.

Europar Batasunak bultzatzen duen Ekonomia Zirkularraren eta aldaketa klimatikoa mitigatzeko politikaren aplikazioaren ondorioz, biohondakinek konpostatuak lehenengo sektorean erabiltzeko mandatu irmoa dago. Hori dela eta, konposta bai nekazaritza eta bai lorezaintzan erabiltzearen beharra dago. Euskal herrian biohondakinez egindako konposten inguruko esperientzia zientifiko-tekniko zabalago dago, baina ongari hauen balizko erabiltzailetara ez da behar bezala zabaldu. Kurtso honen bidez biohondakinekin egindako konposten inguruko esperientziak zabaldu eta horren inguruko mitoak eta us-te okerrak argitu nahi dira bai nekazaritza eta bai lorezaintzan.

Era berean, tailer praktiko baten bidez, erakutsi nahi dira teknika sinple eta merkeak konpost zehatz baten ezaugarri eta erabilerak aztertzeko.

**E D A R I A K**

**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.com

Paisajismoa  
Kimaketak  
Mantentze-lanak  
Lorategiak Discinatzea eta Sortzea  
Ureztatze Sistema Automatikoak

**"TELLETXEA"**  
Lorazaintza

Otxangoko Ind. 18 | LESAKA  
T. 619 418 683 | johntelletxea@hotmail.com  
www.telletxealorazaintza.com

**zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g  
31780 Bera  
t. 948 631 106  
w. www.zalain.info

**zalain**

KULTURA → IRAILAREN 24AN, ISIDORO FAGOAGAREN OROIMENEZ

# Piano eta ahots emanaldi berezia prest dute iganderako

Javier Perez de Azpeitia herriko piano-jolearen eskutik eta Miguel Olano tenore errioxarraren ahotsetik



UTZITAKO ARGAZKIAK

Javier Perez de Azpeitia piano-jole beratarra eta Miguel Olano tenore errioxarra.

## TTIPI-TTAPA

Isidoro Fagoaga, bada tenorea! izenburupean Beran egiten ari diren jardueren baitan, Isidoro Fagoagaren Lagunak elkarteak antolatutako udazkeneko lehen ekitaldia irailaren 24an izanen da. Javier Perez de Azpeitia piano-jole beratarra eta Miguel Olano tenore errioxarra musika emanaldi berezia eskainiko dute 19:00etatik aitzinera Kultur Etxean.

Elkarrekin edo pianoarekin bakarrik, *Sonata de 5<sup>o</sup> tono* (P.Larra - ñaga), *Caro Mio Ben* (Giordani), *Vaga Luna* (Bellini), *L'Ultima Canzone* (Tosti), *El Canto de las Montañas* (D. Zabalza), *Non ti scordar di me* eta *A Vuchella* (Tosti), *Core Ingrato* (Cardillo), *Viva Navarra* (Larregla), *Del cabello mas sutil* (Obradors), *Jota* (Falla) eta *Amapola* (Lacalle) eskainiko dituzte.

## URRIAREN 1EAN

### Gure Txokoak antolatutako aire zabaleko XIII. pintura-lehiaketak mila euroko lehen saria emanen du

## TTIPI-TTAPA

Gure Txokoak segida ematen dio duela bi urte berreskuraturako margo lehiaketari. Aurten urriaren 1ean izanen da.

Margolarien lana agerian paratu eta artea herritarrengana hurbiltzeko asmoarekin antolatu du Gure Txokoa elkarteak, Udalaren babesarekin XIII. Berako pintura-lehiaketa aire zabalean. 16 urtetik goitiko edozeinek parte hartu ahal izanen du eta izena emateko egun berean joan behar da lamoteneako egoitzara goizeko 9etatik aitzinera. Euskarria zigitatu eginen zaie partai-

deei, eta ondotik, lanak 14:30era-ko aurkeztu beharko dira. Parte-hartzaileei bazkaria emanen zaie Gure Txokoan bertan.

Edozein teknika erabili ahal izanen da, baina margolanaren euskarriak ez du aitzinetik manipulatu egon behar, erabat zuria egon behar du. Euskarriaren neurria librea izanen bada ere, alde bakoitzetik gehienez ere 100 cm eduki ahal izanen ditu.

Hiru sari emanen dira, 1.000 eurokoa, lehenbizikoa; 600 eurokoa, bigarrena eta 400 eurokoa, hirugarrena. Lan irabazleak Gure Txokoa elkartearen eta lehiaketa-

taren babesle den Udalaren esku geldituko dira, eta gainerakoak egun berean edo ondorengo 15 egunetan jaso daitezke, jasotzeko eguna eta ordua zehazteko aitzinetik abisua emanda Luperi (647 840482 telefonoa) edo Juan Carlos-i (616 240144). Sari ematea lehiaketaren egun berean eginen da, 18:30ean. 17:00etatik 18:30era lanak ikusgai izanen dira lamotenean.

Sarituak ez diren margolanak erosteko aukera egonen da eta saritutakoak Altzateko komertzioetako erakuslehoetan paratuko dira ikusgai.

## FLASH

### Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo eza-gunek *Tipi-Tapa, Korrika!* bere azken ikuskizuna eskainiko dute irailaren 30ean, larunbatean 17:30ean Eztegarra frontoian, Labiaga Ikastolak antolatuta. Haur eta ez hain haurren gozamina sortuko duen emanaldirako sarrera 7 euro gostako da 2 urtetik goitikoentzat eta euro bat 0-2 urte arteko haurrentzat. Txartelak Berako Purienean (Agora prentsa), Lesakako Telletxea argazki dendan, Etxalarko Herriko Ostatuan eta Doneztebeko Kimetz belar dendan paratu dituzte salgai.

**LARRETXEAK EGYPRAK**

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri. Piketeak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

**xuga**

tel. 948 631 519  
www.xugabera.com  
www.facebook.com/xugabera

**FRANDONEA, s.l.**  
PABAIK UGA BARAZKIAK

**BILTEGIA 948 630 102**  
**ANDER 687 736 929**  
Bidasoa, 76 - atea 21-22  
31780 BERA

## LESAKA

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 23AN, EGUN HANDIRAKO HIRU ASTE FALTA DIRENEAN

# Dena ez dela lana gogoratuko du Nafarroa Oinezek larunbatean

Egun osoan musika, erakusketak, giza proba paella jatea eta kontzertuak

## Aitor AROTZENA

Hilabete eskas falta da urriaren 15eko ospakizun egun handirako eta urte osoan egindako jarduerara programa borobiltzeko, egun osoko ospakizuna antolatu du Nafarroa Oinezek irailaren 23rako, *Dena ez delako lana beiti* goiburupean.

Larunbat goizeko 10:30ean Lesakako txistulari eta soinuariak ibiliko dira karriz karrika. 11:00etan Burdinaren erakusketa egingen da, Brun burdinola eta herriko Pedro Lantz arotzaren eskutik. Txikiak Handi erakusketa zabalduko da. Gogoratu behar da aurten Nafarroa Oinezeko *Txikiak Handi* egitasmoak Lleida (Herrialde Katalanak) eta Venezuela aldera egin duela salto. Izan ere, Aranera eta Makiritate hizkuntzak izango dira aurten egitasmo protagonista. Biak ere galtzeko arriskuan daudenak, Unescoren arabera. Hizkun-



ARGAZKIA: NAFARROA OINEZ

Irlandako ordezkariak, Berako Labiaga ikastolan.

tza komunitate horietako ordezkari bana etorriko dira urriaren 15ean, Nafarroa Oinez egunean, *Txikiak Handi* manifestua sinatzera. 13:00etan toberak aditzeko aukera izanen da.

17:00etan Emarrigiza proba taldeak erakustaldia eskainiko du eta gero, nahi duenak proba egiteko modua izanen du. 18:00etan dantzaldia izanen da Gabenara taldearekin eta gero berendu afora (paella jatea), gaueko 8:30etik aitzinera. Helduak 5 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 3 euro. 23:00etan kontzertuak izanen dira Kalera, Autobus Magikoa eta Afu taldeekin.

## IRAILAREN 9AN EGIN ZUEN NAFARROA OINEZK

### Euskal Herria-Eire topaketa eta Trenbide(o)a lehiaketako sariak

#### A. AROTZENA

Euriak ez zuen irailaren 9ko Bikin bat in Euskal Herria-Eire (Irlanda) topaketa eta Trenbide(o)a lehiaketako sari banaketa goibeldu. Alderantziz. Hainbat ekimen antolatu ziren Lesakako Nafarroa Oinez atariko jardueren baitan: mendi ibilaldia, Eireko gazteei omenaldia, sormen lehiaketako sari banaketa, kalejira, kantu bazkaria...

Lesaka eta Bera arteko bidea oinez egin ondotik San Migel zubian egin zen lehen ekitaldian. Gero, kalejiran joan ziren Berako Labiaga ikastolaraino. Bazkariaren aitzinetik, Trenbide(o)a lehiaketako sariak banatu ziren. Bortz lanen artean *Exkas* (Kattalin Odriozola, Ane Telletxea, Ane Renaud, Uxue Mesa eta Iratxe Muxika kideekin) eta *Irene* (Imanol Mesa, Iraia Etxarte, Garazi Ubiria, Ihintza Lekuona eta Eider Goizueta) lanak gailendu ziren. *Txikiak Handi* manifestua irakurri zuten euskaraz eta Irlandatik etorritakoek gaelikoz.

## FLASH

### Urrezko eta Diamantezko Ezteiak

Aurten 85 urte bete eta Urrezko edo Diamantezko Ezteiak (50 edo 60 urte ezkondurik) omentzeko ospakizuna prestatzen ari da San Fermin elkarteak. Egoera horretan daudenek urriaren 8a baino lehen eman behar dute izena erretiratu-egoitzan. Ez da beharrezkoa elkarteko bazkide izatea. Ezteien kasuan, ezkontzaduta ziurtatzen duen familia-liburuaren fotokopia aurkeztu behar da eta 85 urtekoek Nortasun Agiriaren fotokopia.

### Euskaltzaindiaren lan-saioa herrian irailaren 29an

Euskaltzaindiaren zuzendaritza batzordeak lan-saio bat egingo du Nafarroa Oinez antolatzen den herrian. Irailaren 29an izanen dira bisitari euskaltzainak. Udaletxean egingen dute saioa eta Tantarumairu ikastolan harrera egingen diete ikastolako eta NIEko ordezkariak. Ikasleek galderak egingen dizkiete beraien lanari buruz eta ondotik argazkia aterako dute elkarrekin. Gero, bazkaria izanen dute Arkupe elkartearen. Bazkalondan, herriko zenbait eraikinen historia ezagutzeko itzulua egingen dute Rafael Eneverarekin.

**MARITX**

- Ingeniaritza elektrikoa
- Boletín industria
- Proiektu elektrikokoak
- Instalazio elektrikokoak

Legia, 23 - BERA | T. (0034) 636 617 450

- Lentzeria  
- Bainujantziak  
- Mertzzeria  
- Jantzi tipikoak  
- Peñen blusak

**kattogorria**  
lentzeria mertzzeria

Behoko plaza 10 31770 Lesaka  
T. 948 627 514

**IRU BIDE**  
Erregetgia · Asador

Biurraña, 3 · Lesaka  
Tel: 948 637 127

**LABEZAR**

Tel: 948 631 076 · BERA



OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 24AN

## Usategietako Tradizioaren besta igandean ospatuko da Lizarietan

Bertze urte batez Etxalar eta Sararen arteko hitzarmenaren berrestea egingen dute

### Irune ELIZAGOIEN

Egun guziko egitarau zabala izanen da Lizarietan irailaren 24an, Usategietako Tradizioaren harira. Goizeko 10:00etatik 13:00etara Sarako Merkaturia eta Etxalarko azokaren salmenta postuak, usoak sarean erakusketa, hautrentzako puzgarriak eta hamaiketako taloekin izanen dira. 10:30etik aitzinera boteluzeko pilota partida izanen da eta segidan 11:30ean Usategietako makila (karro-

te) botatzeko munduko IV. Txapelketa. Ondotik nahi duenak paleta botatzeko aukera izanen du. 12:30ean 2011ko irailaren 4an Sara eta Etxalarrek egin-dako hitzarmena berretsiko dute. 13:00etan Sarako dantzariak emaldia eskainiko dute eta 14:00etan bazkaria izanen da Lizaietako zelaietan. 17:30etik aitzinera Herri Kirol emaldia eta Beñat eta Ferdnoren eskutik musika izanen dira. Bazkarian apuntatzeko epea irailaren 21a arte izanen da Elutsan eta Herriko ostatuan (22 euro).

### Patata tortila txapelketa

Urriaren 7an izanen da Usategietako Igan-de bezpera eta azken urteetan egin ez bada



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Usoak eta usategiak protagonista izan dira eta izanen dira datozen asteetan.

ere, aurten berriz ere patata tortila txapelketa antolatu dute. Arratsaldeko 6etan izanen da eta hiruko taldeetan aurkeztu behar dute partehartzaileek. Talde bakoitzak arduratuko da behar duen material eta osagaiak plazara ekaritzeaz. Elutsa eta Herriko Ostatuan apuntatu behar da urriaren 1a baino lehen.

### Landagain eskolan ikasturte berria

Irailaren 7an eman zioten hasiera ikasturte berriari Landagain eskolako ikasle eta irakasleek. Aurten 11 ikasle berri hasi dira eta guztira 97 ikasle eta irakasle izanen dira 2017-2018 ikasturte honetan.

### USATEGIETAKO ENKANTEAK

## Bigarrenen hobetzerik gabe, 31.915 euro bilduko du Udalak

#### I. ELIZAGOIEN

Iarmendi inguruko 21 uso ehiza postuen enkantea egin zen irailaren 3an Herriko Etxean. 31.915 eurotan eman ziren, hasierako prezioaren (34.250 euro) azpitik. Izan ere, postu bat izan ezik, denak hasierako prezioan eman ziren eta lau hutsean gelditu ziren. 21 postuetatik 16 hasierako prezioan eman ziren, inolako hobetzerik gabe. 12. postua 73 tanto hobetu zen (730 euro gehiago). Aldiz, 15., 16., 17. eta 18. postuak hutsean gelditu ziren eta inork ez zituen hasierako 715 edo 920 euroak ere ordaindu. Posturik garestienak, zortzigarrena eta hamekagarrena, hasierako 3.270 eurotan eman ziren.

Behin betiko enkantea irailaren 12an egin zen eta ez zen hobekuntzarik izan eta hutsean gelditutako lau postuak eman gabe segitu zuten.

Udalak irailaren 28an egingen du ohiko baztarrak eta orduan erabakiko da zer egin eman gabe gelditu diren postu horiek.

Foto: Pressfoto - Freepik.com

## Caser RESIDENCIAL

Zure ondoan, gehien behar duzunean

**ANAKA** | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780  
**BETHARRAM** | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

**Laguntza zerbitzuak**

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologia
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia
- FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA
- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa • Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia

**Ostalaritza**

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

**Bestelakoak**

- Ile-apaintza
- Jostuna
- Erijiio zerbitzuak-Meza
- Laguntza teknikoak kudeaketa
- Kanpora laguntza

[www.caserresidencial.es](http://www.caserresidencial.es)

## ARANTZA

HEZKUNTZA → IKASTURTE HASIERA

# 76 ikasle eta 13 irakaslerekin abiatu dute ikasturtea eskolan

Guraso Elkarteko junta berritu dute

## Nerea ALTZURI

Joan den irailaren 6az geroztik, mugimendua agerikoa da eskolan. Ikasturtea orduan hasi zen, 76 ikaslerekin eta 13 irakaslerekin.

Ikaslegoari dagokionez, guztira zazpi talde dira. Haur Hezkuntzan hiru talde daude, 3, 4 eta 5 urtekoak; Lehen Hezkuntzan ere 3 talde daude ziklotan bilduak eta DBHn, berriz, bertzelatle bat dago.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehenbizi bi mailetan, 41 ikasle dira eta horrek adierazten du azken urteetan ikasle kopuruak gorakada izandu duela.

Irakaslegoari dagokionez, berriz, klaustra 13 irakasle osatzen dute. Haur Hezkuntzan hiru tutore daude eta horietako bik lanaldi murriztua eskatua dutenez, laugarren irakasle batek osatzen du horien murrizketa.

Lehen Hezkuntzan, hiru tutore daude eta DBHn, berriz, bi irakasle daude, batek zientziatiko eta bertzeak letretako ikasgaiak emateko. Espezialistei dagokienez, ingeleseko bi irakasle dituzte. Musika, soinketa, logopeda eta laguntza irakaslea (PT) ibiltariak dira eta Berako Ricardo Baroja eskolatik etortzen dira. Orientatzailea ere klaustra dago eta ibiltaria da, Etxalar eta Iganztira joaten da.

## UDAN OBRAK ESKOLAN

Udako oporraldian, Udalak hainbat obra tiki eta konponketa lan egin ditu, ikasgelak gaur egun diren beharretara egokituz. Berogailu sistema berritu dute eta kaldera berria ere paratu dute. Gurasoak eta hainbat herritar auzolanean ere lanean aritu dira eskolan udan.

## JARDUERAK

Ikasturteko jardueri dagokienez, urriaren 2tik 6ra, 5. eta 6. mailako ikasleak *English Week*-en parte hartuko dute Leharoz. Eskiatzera ere



ARGAZKIAK: MIKEL LARRETXEIA

## Eguzkialdeko besta

Eguraldi kaxkarra ez zen oztopo izan irailaren 9an ospatu zen Eguzkialdea auzoko bestarako. Altxafero Irullegiko Juana Marik botatu zuen. Herri kirol saioan, Etxeberria aita-emeak Olasagasti eta Pellejeroren kontra aritu ziren eta azken horiek irabazi zuten. 100 bazkaltiar bildu ziren auzoko bazkarian eta ondotik, Beñat eta Fernandoren eskutik, dantzaldia izandu zen. Ilunabarrean pintxoak ere izandu ziren. Giro ederrean joan zen auzoko besta eguna.

joanen dira Aste Zurian eta DBHkoak aurten ikas-bidaiara joanen dira.

Aitzineko alean aipatu bezala, jantoki zerbitzua ere martxan da eta ikasturte honetan, irailean, ekainean eta asteazkenetan ere zerbitzua eskaintzen dute. Maixe Oskoz da sukaldaria da eta Ixabel Lukanbio, Edurne Iparragirre eta Loli Iraola zaintzaleak.

## GURASO ELKARTEA

Berriki Guraso Elkarteko junta ere berritu dute. Aritz Urrutikoetxea, Olatz Irigoien, Itsaso Bereau eta Iñaki Alustiza atera dira, eta Gurutze Pikabea, Aintzane Iturria, Aitziber Alberdi eta Sonia Iturria dira juntan sartu berriak. Segituko dutenak, berriz, Izaskun Maiz, Maite Lujanbio eta Belen Mutuberria dira. Guztira zazpi kide dira.

## Zuzenketa

Aitzineko Ttipi-Ttapa-ren 32. orrialdean, eskualdeko udalek bankeetxeekin duten zorraren berri agertu zen. Baina Arantzari dagokion datua ez da zuzena. Arantzako Udalak 310.000 euroko zor bizia du bankeetxeekin (eta ez 350.000 eurokoa). Aitzineko urtetik 29.000 eurotan murriztu du zorra Udalak.

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea  
jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
abokatua  
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

**JAIONE - COXOTEGIA**  
948 630 786  
Altzate, 21 · BERA

GIZARTEA → HERRIKO BESTETARAKO PREST

## Txukuntze eta egokitze lanak egin dituzte Biltoki elkarteak

Ezinduentzako komuna egokitu dute eta biltegia txukuntzeko probestu dute

### TTIPI-TTAPA

Herriko bestak begibistan ditugu eta Igantziko Biltoki elkarteak itxura berria erakutsiko die bazkideei nahiz bisitan sartzen direnei. Izan ere, zenbait obra egin dituzte komunak

ezinduentzako egokitzeko eta bidenabarkoan, biltegia txukuntzeko eta bertze zenbait lan tikiago egiteko ere probestu dute. Talotxa eraikuntza enpresak egin du lanik handiena, 6.000 euro inguruko aurrekontuarekin, baina bazkideek ere auzolanean garbitze lanak egin dituzte. Bestetan, gaurdira bitarte irekia egonen da elkarte bazkideendako, baina azken urteetan bezala, ez da ostatu moduan irekiko.



ARGAZKIA: BILTOKI ELKARTEA

Herriko txirrindulariek ere gustura parte hartu zuten BTT zeharkaldian.

### EHUN TXIRRINDULARI BAINO GEHIAGO

104 txirrindulariek egin zuten irailaren 3an Igantziko XXVII. mendi bizikleta zeharkaldia, joan den urteko kopurua ia bikoiztuz. Bizkorrenak bi ordu inguru behar izan zituen 30 kilometroko ibilbidea osatzeko. Herri inguruan, bertze 22 neska-mutikok parte hartu zuten lasterketan.

### Ba al zenekien

Aroa Canabal herritarra berriz ere Espainiako txapeldun izan dela kenpo-kai arte martzialean. Duela bi urte ere txapeldun izan zen, Beñat lan-tzi bezalaxe.

### IRAILAREN 22AN INAUGURAZIOA

Txipitinea ostaturik berriz irekiko dute

### TTIPI-TTAPA

Txipitinea estankoa obretan da eta ostatu modura idekiko dute besten aitzinetik. Inaugurazio ekitaldia irailaren 22an, ortziraletan egin gogo dute.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK  
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK  
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423  
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com



**Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzea zure esku ere badago**



**BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU**



**PVC-zko sistema bakarra\*  
Passive house ziurtagiriarekin  
BETIKOn daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila  
Merkatuko isolamendurik  
hoberena.**

**A+++**



\* 70 mm

# SUNBILLA

KULTURA → IRAILAREN 22AN

## IX. Dantza jaialdia eskainiko dute herriko dantzariak ortziralean

Frontoian arratsaldeko 8etan hasita

### Maider PETRIRENA

Irailaren 22an, ortzirale arratsaldeko 8etan herriko dantzariak beraien bederatzigarren Dantza Jaialdia eskainiko digute herriko frontoian. Haur ttikienetik hasita helduak bitarte dantzari kuadrilla elkartuko dira ikuskizun eder bat eskaintzera. Animatu jaialdi eder eta polit hau ikustera.

### Jubiloteka herrian abiatuko da

Malerrekako Mankomunitateak Obra Social La Caixarekin Jubiloteka antolatu dute Malerrekako herrietan eta ho-



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Urtero ikuskizun bikaina eskaintzen dute herriko dantzariak.

rien artean gure herrian. Ortzegunetan izanen da goizeko 10etatik 12:30ak bitarte Udaletxean eta hasiera eguna irailaren 21a izanen da. Animatu aukera ederra izanen da tarte goxo eta polit bat pasatzeko.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Koldo Herrerak azken proba aurten

Koldo Herrera Urroz Caja Ruralek antolatzen dituen BTT karreretan parte hartzen aritu da eta irailaren 27an bukaera emanen dio martxoaren 5ean Unzuen hasitako karrerei. Zorionak.



ARGAZKIA: RUBEN IRIGOIEN

### Herritarrak Igantziko BTT ibilaldian

Irailaren 3an Igantzin mendi bizikleta ibilaldia izan zen, Igantziko Biltokik antolatua eta bertan sunbildar kuadrilla honek parte hartu zuen.

### MALERREKA

Jubiloteka zerbitzua eskainiko da udazkenean

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak, La Caixako Obra Social proiektuaren laguntzarekin, Jubiloteka jarri du martxan eskualdean irailaren 18tik abenduaren 21era bitarte.

Malerrekako jubilatuz guztiei zuzendutako zerbitzu honek pertsonak bere ingurunean aktibo mantentzeko ongizate espazio bat eskaini nahi du, elkarren arteko erlazioak bultzatu, baita, sormena, memoria, arreta, irudimena, hizkuntza, orientazioa, erlaxazioa eta bestelako gaitasunak lantzea ere.

Doneztebeko Herriko Ostatuan, irailaren 18an hasita astelehenero goizeko 10:00etatik 12:30era izanen dute zerbitzua.

Zubietako eskolan, irailaren 19an hasita asteartero 16:30etik 19:00etara.

Donamariako Herriko Etxean, irailaren 20an hasita asteazkeneo 10:00etatik 12:30era eta Sunbillako Udaletxean, irailaren 21ean hasita, ortzegunero, 10:00etatik 12:30era. Irailean doan eskainiko da zerbitzua. Urrian 20 euro kobratuko da, azaroan 20 euro eta abenduaren 15 euro.

Izen-ematea aitzinetik egin daiteke Malerrekako Mankomunitatean (948 451746 telefonoan) edo [ssdoneztebe@malerreka.infolocal.org](mailto:ssdoneztebe@malerreka.infolocal.org) edo bertara hurbilduz.

GIZARTEA → 2020. URTEA BAINO LEHEN

# Eskualdeko Larrialdietako Zerbitzua martxan jarriko dutela iragarri dute

Doneztebe-Bidasoa eremurako

## TTIPI-TTAPA

Doneztebe-Bidasoa, Tafalla, Zangoza eta Sakanan Eskualdeko Larrialdietako Zerbitzu baina jarriko dutela iragarri zuen irailaren 7an Fernando Dominguez Osasun Kontseilariak. Gainera, azpieskualdeko bertze gune batzuk irekitzea ere aztertzeko asmoa dute. Larrialdietan adituak diren osasun arloko langileek, 24 orduz eskainiko dute zerbitzua eta erradiologia arruntak eta ekografiak egiteko baliabideak eta baliario anitzeko ZIU mugikor bat ere izanen dituzte. Horrela, arreta azkarra eskaini eta he-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

24 orduz eskainiko dute zerbitzua larrialdietan adituak diren osasun arloko langileek.

rritarren lekualdatzeak saihestea lortu nahi dute.

## ESKUALDEAK ERREFERENTZIA

Eskualdeak erreferentzia-puntua izanen dira Larrialdi zerbitzuen beharrak berregituratu eta berriro definitzeko

orduan. Departamentuak lurraldeko ekitatea hobetu eta landa-biztanleei segurtasuna ematen dien zerbitzu bat sortu nahi du: 2020 urterako biztanleen % 75 larrialdietako berariazko zerbitzu mediku batetik 15 minutu baino gutxiagora egotea lortuz.

Proposatutako egiturak prebentzio-ekin-tzak eta osasuna sustatzekoak bultzatu nahi ditu, tokiko esparruan haurrentzako arreta integraleko eremu bat eskaini eta paziente kronikoei eta mendekoei arreta bermatuz. Lurraldeko eta Larrialdietako

DATUA

# 2020

URTERAKO biztalen %75 larrialdietako berariazko zerbitzu mediku batetik 15 minutu baino gutxiagora egotea bermatu nahi dute.

Eredu berriak herritarren ospitale-zerbitzuetarako sarbidea hobetuko du: etxeko ospitaleratze zerbitzuak handitu edo eskualdeko erreferentziako adituak jarriz Barne Medikuntzako eta Geriatriako esparruetan eta Osasun Mentaleko edo Sexu eta Ugaltze Osasuneko baliabideak eskainiz.

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

**Edredoi nordikoetan espezialistak**  
edredoi fundak · albornoak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak  
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

# DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → BESTA TTIKIAK ASTEBURU HONETAN OSPATUKO DIRA

## Udazkeneko kultur agenda anitza martxan da

Larunbatean paella-jatea, mariatxia eta Gabenara taldearekin dantzaldia izanen dira

### Marga ERDOZAIN

Udazkena ailegatzearekin batera Doneztebeko Agenda ere hurbiltzen ari da, eskaintza anitza eta zabalarekin. Erabat itxia ez dagoen arren, era askotako ekimenak aurreikusita daude: besta txikiak, ipuin txokoa, zinea, udazken literarioa, liburuen aurkezpenak, udazken musikala, txotxongiloak, feriak... Ikasturte berrian ere hainbat ikastaro antolatuko dira.

Burrumba gazte taldeak antolatutako **besta txikiak** honako egitaraua izanen dute. Irailaren 22an, ortziralean triki-poteoa, suziria eta ondoren zopak (Santa Luzia plazan); gauean Modestoren emanaldia. Larunbatean paella-jatea (norberak prestatutakoa), 19:30ean Chuchin Ibañez eta gauerdian Gabenara taldea.

**Irailaren 29an** Elixabet Badiolak idatzitako *Aita, aún quedan nueces* liburuaren aurkezpena egingen dute (19:00etan liburutegian). Rocío Ortiz, historiagileak egingen du Elixeren kontakizun laburren azken lana irakurtzeko gonbita.

**Ipuin txokoa** urria-

ren 3an berriro abiatuko du ikasturte honetako abentura. 0-3 urte bitarteko umetxoek, hirugarren urtez, aukera izanen dute asteartero ipuin eta musikaren magiaz gozatzeko. Guraso, zaindari eta atautxi-amatxiek belarriak presatu eta apuntatu ongi, asteartetan 11etan liburutegian da zita. Haizea Loirak bideratuko du berriro ere ekimen hau.

Urriaren **garapen personalaren tailerra** ere abiatuko da. Marina Pintok gidatuko du hilabete behin eta 8 hilabetez burutuko da ekimen hau larunbatetan. Saio hauetan, barne garapenerako beharrezkoak diren alderdiak landuko dira, bizian era egokian izan eta egoten lagunduz, emozioak askatu eta sendatu eta gure potentzialak garatu ahal izateko.

**Idazketa-tailerra** ere martxan. Bertako liburutegiak bultzatutako tailer honekin idazketaren munduan murgiltzeko aukera eman nahi da. Tailer hau Miren Lanzen agindupean bideratuko da. Helburua barrenean daukagun idazlea ateraraztea. Norberak ikusiko du zertarako erabiliko dituen teknika eta ezagutza horiek. Interesatu dutenak 948 450909 telefonoan apuntatzen ahal dira. Aipatu behar da tailer hau maiatzera arte eskainiko dela.

### Udazken literarioa

Pasa den urteko zikloari jarraipena emanez,

aipatu behar da aurten ere udazken literarioa antolatuko duela udalak. Iazko edizioan Malerrekako hainbat idazleren lanak ezagutzeko aukera izan genuen, aurten Baztango idazleek aukera izanen dute haien uzta bertan plazaratzeko.

Horretaz gain udazkeneko agendatik bertze harri-bitxi hauek azpimarratzen ahal dira: Esloveniako Komorni Zbor Kgbli Ljubljana abesbatzaren emanaldia. *Harria maitasun istorioa* izeneko emanaldia ere entzungai izanen da, Iñaki Perurenak harriari egindako omenaldi poetikoa gurean izanen dugu. Olatz Zugastiren kontzertua, txikiendako txotxongiloak... Zehaztapenak hurrengo aleetan emanen ditugu.

### Zirku tailerrak martxan

2017-18 ikasturtean ohikoak diren eskaintzez gain, aipatu behar da zirku tailerrak ere antolatuko direla. Tailerrak 4 urtetik gorakoei zuzenduta daude. Malabareak, akrobaziak, oreka, akroporteak... landuko dituzte. Tailerra hiru hilabetez eskainiko da, urritik abendura bitarte (50 euroko kostua du). Hitzordua asteartetan arratsaldeko 4:30etik 6:30era. Aisialdia era dibertigarrian pasatzeko aukera; arreta, psikomotrizitatea, eta oreka landuz eta hainbat ko-reografia dibertigarri sortuz.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Elixabet Badiolak bere azken liburua aurkeztuko du.

### IRAILAREN 29RA ARTE

## Matrikula epea ireki du euskaltegiak

### M. ERDOZAIN

2017-18 ikasturteko matrikula epea zabalik dago IKA euskaltegian irailaren 29ra arte. Interesatuak 948 451555 telefonora deitzen ahal dute edo [malerreka@ika.euskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ika.euskaltegiak.eus) helbidera idazten ahal dute. Mankomunitateak laguntzen du.



**Salmenta - Alokairua - Aholkularitza**  
**Bordak - Etxeak - Baserriak - Lokal komertzialak**  
**Hiri eta landa-lursailak**  
**Garajeak**  
**Balorazioak**  
**Salerosketa eta alokairuen kudeaketa**

**ORDUTEGIA**  
 Astelehenetik ortziralerara 10:00-13:30 / 17:00-20:00  
 Larunbatetan 10:00-13:00

Eliza kalea, 22 DONEZTEBE  
 T. 948 451 337 | 685 153 665 | 667 275 013  
[sabaia@sabaia.inmobiliaria.com](mailto:sabaia@sabaia.inmobiliaria.com)  
[www.sabaia.inmobiliaria.com](http://www.sabaia.inmobiliaria.com)

**AGENTE ESCLUSIBOA**  
 Seguros Bilbao

**IBERDROLA**  
 Bezeroen arretarako gunea  
 Lan egunetan - 09:30-13:30 - [iberdoneztebe@gmail.com](mailto:iberdoneztebe@gmail.com)

**Energia ziurtagiriak**

## DONAMARIA-GAZTELU

GIZARTEA → IRAILAREN 2AN

# Lurperatze duina izan du Sagardia Goñi familiak

Oroitarria inauguratu eta herritarrek omenaldia eskaini zieten

### TTIPI-TTAPA

Duela 81 urte, Juana Josefa Goñi 38 urteko gazteluarra eta haren sei seme-alabak desagertu ziren. Legarrea leizean amilarazi zituztela zioten zurrumurruek, baina isiltasuna nagusitu zen jondan urtera arte. Fa-

miliak gordetako memoriari, Jose Mari Esparza historialariaren ikerketak eta Aranzadi zientzia elkartearen lanak leizetik egia azaleratzea lortu zuten. Iaz, urriaren 12an, atera zituzten Legarrea leizetik duela 80 urte hara botatako Juana Josefa Sagardia Goñi eta bere sei seme-alabaren azken hezurdurak eta irailaren 2an, Sagardia Goñi familiak merezitako omenaldia jaso zuen.

Donamaria-Gazteluko Udalak, Nafarroako



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Juana Josefa Goñi eta bere sei seme-alabaren hezurdurak hilerria eraman zituzten, bertan hobiratzeko.

Gobernuaren laguntzaz antolatu zuen ekitaldia eta Legarreko zuloan oroigarria inauguratzeaz gain, Juana Josefa Sagardia Goñi eta bere sei seme-alabaren gorpuzkiak hilerrian lurperatu zituzten. Goizean,

10:30ean, leizearen sarreran jarri duten oroitarria inauguratu zuten; ondoren, Gazteluko plazan, senideei eman zizkieten aztarnak. Ekitaldian izan ziren, bertzeak bertze, Ana Ollonafarroako Gobernuo

Herritarren eta Erakunde Harremanetarako kontseilaria eta Isabel Elizalde Nekazaritza Garapenerako kontseilaria. Omenaldiaren ondotik, Gazteluko hilerria eraman zituzten gorpuzkiak, eta bertan hobiratu.

1. faseko azken etxe eta lokalak SALGAI!

## ETXEBIZITZA BERRIAK **DONEZTEBE**

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA MOURGUES IBILBIDEA

- ✓ **RURAL KUTXA**ren babes eta laguntzarekin 
- ✓ Salmenta zuzena: **PROMOTOREAK GARA**
- ✓ **BABES OFIZIALEKO** etxebizitzaren baldintzekin %15eko desgrabazioa errenta aitortpenean

135.000€tik aurrera  
Informa zaitez

**EZKAIN ERAIKUNTZAK**  
Inzakardi kalea z/g | **DONEZTEBE**

629 951 170



## ZUBIETA

OSPAKIZUNA → URRIAREN 7KO EUSKARAREN EGUNEAN

# Berriz ere Dantza Luzea eginen dute plazan

Igandero  
17:00etan  
egiten dituzte  
entseguak

### Fermin ETXEKOLONEA

Saiakera eginen dute Dantza Luzea berreskuratzeko Euskararen Egunean. Agian ere, 1972an hartutakoak bezalako irudiak ikusiko dira berriz plazan. Igandero arratsaldeko 5etan egiten dituzte entseguak herriko estalpean.

Euskararen Eguna antolatzeke lanetan ha-

siak dira gazteak. Urriaren 7an izanen da eta hurrengo alean emanen dugu egitarauaren berri, baina dagoeneko egin dituzte bilerak.

### Herriko Ostatua

Herriko Ostatua berriz ere errentan emateko lehiaketa atera du Udalak. Angelita Otxandorena eta Martzelino Santesteban aritu dira orain arte, baina kontratua akitu eta ez dute segitzeko asmorik. Proposamenak urriaren 2ko goizeko 11ak arte aurkez daitezke. Hiru urte-

ko kontratua izanen da, baina luzatzeko aukera ere bada. Hasierako errenta, hileko 150 euro + BEZa. Baldintzak Herriko Etxean eta udaleko webgunean ere ikusgai daude. Urriaren 7ra arte ariko dira Angelita eta Martzelino, eta eskerrak eman orain arte egindako lanarengatik.

### Jubiloteka

Irailaren 19tik abenduaren 19ra eskainiko du jubiloteka Ramoni Ordoki lesakarrak, asteartero 16:30etik 19:00etara eskolan.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Dantza Luzea Zubietako plazan, 1972. urtean.

### Lau ikasle berri hasiak dira eskolan

Lau ikasle berri hasi dira, bat Iturenen (Anuk

Erregerena) eta beste hiru Donezteben (Elaia Santesteban, Noa Bendoiro eta Intza Iribarren).

## ELGORRIAGA

OSPAKIZUNA → ABUZTUAREN 26AN

# Herriko Ostatuko erreleboa besta erraldoiarekin

Irailaren 15ean  
hasi da Itsaso

### Mattin LARRALDE

Bost urtez herriko ostatua eraman duten Xabier eta Ferminak erreleboa eman diote Itsasori. Baina joan aurrietik, despedida moduan, festa erraldoia

egin zuten abuztuaren 26an. Triki poteoarekin hasi ondoren bazkaria izan zuten. Gero, Lamiak bikoteak akustiko ikaragarria eskani zuten, segidan Imultzo eta Belokik dantza giroa jarri zuten eta arratsez kontzertu mundiala eman zuten Petti eta Etxeko uzta taldearekin. Arra-



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Herriko ikuspegia.

tsa ordu ttiakiak bitarte luzatu zen DJ Tororon eskutik. Itsasok irailaren 15ean hartu zuen Herriko Ostatuaren ardura, ilusioz beteta. Ongi etorria berari ere.

### Heriotza

Abuztuan 31n betirako utzi gaitu Karmen txu Olazarrek. Bizi guzian sukaldaria izan zen, lehenik Arretxea fondan, eta orain bere semeari

lagunduz Hilarion jate-txean. Bere umiltasunean hainbeste otordu goxo prestatu dizkigu. *Beste izar dizdiratsu bat gehiago izanen da Elgorriko zeruan.*



## Ttapi Txartela rekin beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSUTRUK  
-%80ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57  
info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**693** aleko irabazleak >



## ZOZKETAK

**Baztan Abentura Park - 2 tiket**  
Antonio Perez Arregi | NARBARTE  
**Zugarramurdiko lezeak - 2 sarrera**  
Jaione Olazabal Caballero | ARESO  
**Donostiako aquariuma - 2 sarrera**  
M<sup>o</sup> Jose Vera Jauregi | ALMANDOZ  
**Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera**  
Jon Urrutia Altzuarte | AMAIUR  
**Buatxabal - Kamiseta bat**  
Agurtzane Bengoetxea Agerrebere | ETXALAR  
**La Rhune - 2 sarrera**  
Miguel Otxandorena Mutuberria | SALDIAS  
**Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat**  
M<sup>o</sup> Jesus Etxegia Sagastibeltza | IRUÑEA  
**Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat**  
Maialen Baleztena Telletxea | ERATSUN

2 sarrera



Txingudi  
Merkataritza  
gunea  
IRUN

**CAMELOT PARK**  
[www.camelotpark.es](http://www.camelotpark.es)

2 sarrera



**IRRISARRI LAND**  
[www.irrisarriland.com](http://www.irrisarriland.com)

2 sarrera



**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)

**EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**  
[www.eurekamuseoa.es](http://www.eurekamuseoa.es)



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

**ONDDO TA PUNTO**  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**LA RHUNE**  
[www.rhune.com/eu](http://www.rhune.com/eu)



2 sarrera helduentzat

**SENDAVIVA**  
[www.sendaviva.com](http://www.sendaviva.com)



Halloweenerako 2 sarrera

**LI  
BU  
RU  
AK**



**Xabier Altube · Ihes-lerroak**  
**Aitziber Etxeberria**  
· 31 baioneta

**erein**  
DIGITALIZAZIOA  
[www.erein.eus](http://www.erein.eus)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.urtxintxa.eus](http://www.urtxintxa.eus)



[www.buatxabal.eu](http://www.buatxabal.eu)

## ITUREN

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUAK

# Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikiko dute

Sei unitateetarako lekua izanen du eta inbertsioa 1,4 milioi eurokoa izanen da

## Arkaitz MINDEGIA

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat eraikiko du Iturenen, sei unitateetarako eta jantokirako lekuarekin. Izan ere, gaur egungo eraikinak irakaskuntza-jarduera garatzeko beharrezko baldintzak ez dituela betetzen uste baita.

Zentro berriak ez du ia energia-kontsumorik izanen eta Pulunpa izena izanen du. Inbertsioa 1,4 milioi euro ingurukoa izanen da eta lanak 2018an egingen dira.

Zehazki, eraikuntza-lanak 1.290.134,60 euroko gastua ekarriko du, eta horietatik, 1.204.848 euro, obrari dagozkio, eta 85.286,60 euro obra-zuzendaritzakolan gileen ordainsariari. Hezkuntza Departamentuak dagoeneko proiektuaren idazketa eta eraikuntza-lanen zuzendaritza kontratatze-ko espedientea onartu ditu. Horrez gain, hasierako ekipamendurako aurreikusitako gastuak 93.000 eurokoak izanen dira, eta urteko gutxi gorabeherako gastua 11.220 eurokoa izanen da. Garbiketarako



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

## Igerizarretako presaren azken argazkia?

Pirinio aldeko erreka eta ibaien permeabilizazioa bultzatzeko Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak elkarlanean garatzen ari diren Life-Ireki-bai egitasmoaren baitan dago herriko Igerizarreta presa botatzea ere. Berez irailaren 12an hastekoak ziren, baina hau idazterakoan, oraindik ez dira hasi. Egun horretan Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio, Ingurumena eta Lurralde Antolaketako teknikariak izan ziren presa inguruan eta azken egunetako eurien ondorioz ur-emari handia zela eta bertan behera utzi zuten lanen hasiera. Baina behin betiko atzerapena bertzerik ez da eta ezin jakin noiz hasiko diren lanean. Herrian ere eztabaida sortu da obra honen inguruan. Aurtizko bizilagunek batzarra egin zuten eta hiru mendetako historia duen Igerizarretako presa intereseko ondare izendatzea eskatu dute ahobatez: «Moldatzea ongi iruditzen zaigu, baina ez botatzea, agindu hori geldiaraztea eskatzen dugu».

aurreikusita ditzuten urteko gastuak 11.995 eurokoak izanen dira.

Gaur egungo eraikina 1989. urtean berritu zuten, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako 67 ikasle ditu, sei taldetan banatuta. Ikastetxea Udaletxeko eraikinaren goiko bi solairutan dago, eta udaletxearen sarbide bera du. Horrez gain, gelen barneko antolaketak ez dio erantzuten hezkuntza-erabilera bati.

Lizitazioaren iragarria Kontratazio Atarian dagoeneko argitaratu dago.

## IRAILAREN 23AN EGINEN DA OSPAKIZUN HANDIA

Aitor Mendiluze eta Jon Maia bertsolariak ariko dira kantari Joaldunen Eguneko bazkarian

### A. MINDEGIA

Iturengo txoko guzietan joare soinuaz gozatzeko aukera izanen dute irailaren 23an egingen den Joaldunen egunean. Urtero bezala, larunbat goizean joaldun eta trikitilariak Ameztiako auzoan barna ibiliko dira baserriz baserri eta 14:00etan herriko plazan, Julen Kañamare eta Mieltxo Mingiaren arteko aizkora apostua ikusteko aukera izanen da. Ondotik bazkaria izanen da Jon Maia eta Aitor Mendiluze bertsolariekin. 15:00etan bazkaria izanen da herriko plazan eta egu-



na ongi bukatzeko, arratsaldean guez dantzaldia izanen da Salaberriren eskutik.

## FLASH

### Hondakin berezien Birziklapen etxola

Hondakin berezien bilketarako etxola jarri dute herri sarreran (Lopexene atarian). Hondakin berezien bilketa zerbitzua hobetzea eta horien birziklatze-tasa handitzea da Malerrakako Mankomunitatearen helburua. Animatu eta birziklatu!

### Ikastaroak martxan

Azken urteetan bezala hainbat ikastaroa jarri dira martxan herrian. Zumba astearte eta ostegunetan ilunabarreko 8:30ean izanen da. Nahi duenak egun batean bakarrik egiteko aukera dauka. Izena emateko 646 214573 telefonora mezua bidali. Kenpo kai ikastaroa ere izanen da, berzte urtetan bezala.

**BESTAK** → IRAILAREN 28TIK URRIAREN 2RA

## Iraila eta urria besta giroan lotzeko aukera

Lizaso eta  
Arzallus  
bertsolariek  
girotuko dute  
herri bazkaria

### TTIPI-TTAPA

Irailaren 28tik urriaren 2ra bitarte, mahaia-  
ren bueltan bildu, dan-  
tzan aritu edo herri ki-  
rolez gozatzeko aukera  
izanen da Urroz. Lau  
egunez bestan gozatu  
eta borzgarrean au-  
zolanean herria garbi-  
tzeko proposamena lu-  
zatu dute.

### ORTZEGUNA, IRAILAK 28

- 18:00 Haurrendako puzgarriak.
- 21:00 Zopak Herriko ostatuan.
- 00:00-05:00 Salaberrri akordeoilariarekin dantzaldia.

### ORTZIRALEA, IRAILAK 29

- 10:30 Mus txapelketaren hasiera.

- Goizez eta arratsaldean puzgarriak.
- 11:00 Meza nagusia.
- 12:00 Herriko dantzarien saioa.
- Ondotik, luntxa Herriko ostatuan.
- 21:00 Gazteen afaria (paella).
- 20:00-22:00 Salaberrri akordeoilariarekin dantzaldia.
- 00:00-03:00 Salaberrri akordeoilariarekin dantzaldia.

### LARUNBATA, IRAILAK 30

- 10:00 Mus txapelketako finala.
- Goizez eta arratsaldean puzgarriak.
- Herri bazkaria Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolariekin.
- Arratsaldean, Joxe Anjel musikaria.
- 00:00-05:00 dantzaldia Gabenara musika taldearekin.

### IGANDEA, URRIAK 1

- Goizez eta arratsaldean puzgarriak.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Haur, gazte zein helduk primeran pasatzeko aukera izanen dute bost egunez.

- 12:00 Aizkora apustua: Migeltxo Míndegia eta Iker Vicente, Donato Larretxea eta Jexux Mari Irazuren aurka.
- 17:00 Gorriti eta bere animaliak.
- 17:30 Doneztebeko dantza taldearen emanaldia.
- 19:00-21:00 Hauspolarriak taldearekin dantzaldia.
- 21:00 Tortilla eta postre lehiaketa eta bingo jokoa.

### ASTELEHENA, URRIAK 2

- Herria garbitzea den artean.

## Urrozko Udalak



besta zoriotsuak  
opa dizkizue  
urroztar eta bisitari  
guztiei

Zurgin lanak  
**ingurulan**  
Etxeko edozein konponketa  
616295420 joseba@ingurulan.com  
Urrotz www.ingurulan.com

**sarobe**  
gozotegia okindegia  
pº de eztegarra 25 bajo t.948 63 08 99  
31780 bera (navarra) www.sarobe.net

**BORDALARREA**  
Gure Haragia  
Nuestra Carne  
**Carnes Sein Haragiak, S.L.**  
Industrialdea, 27  
MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
Tel. 943 467 244 943 467 444  
Fax. 943 473 726  
carnesein@bordako.com

# ARKUPEAK

GIZARTEA → AURREKONTUAK

## Aparteko diru-laguntza izan du elkarteak

16.040,48 euro gehiago jasoko ditu Nafarroako Gobernutik

**Fernando ETXEBERRIA**

Diru kontuek hainbeste kezka sortzen duten garaian, berri onak jaso ditu Arkupeak elkarteak. Nafarroako Gobernuak aparteko diru-laguntza bat eman dio eskualdeko adinekoen elkarteari. 7.540,80 euro jasoak zituen aurrez Nafarroako Gobernuaren eskutik eta orain, 16.040,48 euro gehiago ematea erabaki du. Diru kopuru hau ikastaroak, bidaiak, erakusketak eta hitzaldiak ordaintzeko erabiliko da.

Asoziazionsimoa bultzatu, pertsonen autonomia sustatu eta dependentziari aurre egiteko helburua duten programei laguntzeko helburua dute Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza berriek. 152 klub, adinekoen elkarte eta federaziok eskatu zuten diru-laguntza eta aipagarria eta pozgarria da jakitea Ar-

kupeak izan dela diru-kopururik handiena jasoko duena. Bigarren eta hirugarren postuan geratu ziren elkarteek lortutakoa, 8.000 euro, bikoiztuta.

**DIRU-LAGUNTZAK BIKOIZTUTA**

Aurtengo diru-laguntzak iazko datuekin alderatzen badira kopuruak bikoiztu egin direla esan daiteke. Nafarroako Gobernuak emandakoari, Nafarroako Kutxa Fundazioak emandako 10.000 euroak eta Caixabankek jubiloteka finantzatzeko emandako 8.000 euroak gehitu behar zaizkio. Denera, 41.581,28 euro bildu ditu elkarteak.

**BATZORDE EKONOMIKOAREN LANA**

Emaitza borobil honen atzean batzorde ekonomikoak egin duen lana dago. Batean eta bestean aurkeztutako proiektuak oso ongi landu dituzte eta gainera, aurreikusitako bezalaxe, gauzatu dira. Zorionik beroenak.



**Ba al zenekien**

**Urriaren 19an ospatuko den bazkidearen egunerako 630 pertsonen eman dutela izena. Izena ematerakoan parte-hartze errekor guztiak gainditu dira.**



UTZITAKO ARGAZKIA

### 220 bazkidek egin zuten Arantzazura bidaiia

Abuztuaren 31n, Arantzazuko Birjinaren bederatziruaren aitzia, 220 bazkidek bidaiatu zuten santutegira. Mezaren ondotik, Urnietako Oianume jatetxera joan ziren bazkaltzera eta bertan ohikoa denez otordu bikaina eman zieten eta dantzarako tokia ere badutenez, gustura aritu ziren batzuk 19:00 arte dantzan.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Pirinioetan barna itzulia

Irailaren 4an, elkarteko 25 mendizalek itzulia egin zuten Pirinioetan barna. Lehenbiziko egunean La Sarra presatik Respomusoko aterpera igo ziren eta bigarrean Tebarray aintzira ingurutik pasata, Los Infernos mendi-lepotik igarota Azul eta Brachimana aintziren edertasunaz gozatzeko aukera izan zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

### 49 mendizalek mendi itzulixka egin dute Ezkurran barna

Abuztuaren 22an, 49 mendizalek egin zuten Ezkurako txokoak ezagutzeko ibilaldia. Latargi ingurutik pasatu ondotik, indarrak hartzeko geldialdia egin zuten eta Iruñarriko menhirrean argazkiak aterata Elezmunora igo ziren. Gero, Olegi eta Ezkainen barna Erakurrira igo ziren. Harmonikaren erritmora dantzan aritzeko animoa ere izan zuten batzuk. Segidan, Perralekura jeitsi ziren Idoiatik abiapuntura joateko. Bazkarian 56 lagun bildu ziren eta bazkalondoa musika ez zen falta izan. Urriarri Artikutzara joan dira.



**erran.eus**  
Mendialdeko Albiasteak

Eskualdean ateratako **UDAko argazki** ederrenaren bila lehiaketa antolatu dugu.

**III. ARGAZKI LEHIAKETA**  
**erran.eus** atarian

Informazio +  
[erran.eus](http://erran.eus)



## BOTOA EMATEKO ORDUA

Zure gustuko 3 argazkiak aukeratzeko sartu **erran.eus** atarian eta DONAMARIAKO BENTAn 2 lagunendako otordu baten zozketan sartuko zara

**Bozketa fasea:** Irailaren 12tik irailaren 26era arte.

**Irabazleak:** ERRAN.EUS atarian jakinaraziko dira urriaren 5ean.

**Sari-banaketa:** Urri hasieran.

## SARIAK

### HAITZALDE LANDETxea

Eskimera Parajea, **Mutriku**

Tel: 943 60 48 65

[www.haitzalde.com](http://www.haitzalde.com)



EPAIMAHAIAREN SARIA:  
**HAITZALDE LANDETXEAn**  
2 lagunendako  
2 gau eta 2 gosari.

Info +



### BIKIN BATIN

NAFARROA OINEZ

LESAKA

[nafarroaoinez.eus](http://nafarroaoinez.eus)



ERRAN.EUSeko  
ERABILTZAILEEN SARIA:  
**BIKIN BATIN NAFARROA**  
OINEZeko lotea.

Info +



### DONAMARIAKO BENTA

Bentak auzoa, 4 **Donamaria**

Tel: 948 450 708

[www.donamariako.com](http://www.donamariako.com)



Parte-hartzaileen artean  
**DONAMARIAKO BENTAn**  
2 lagunendako otordua.

Info +



# ARESO

HITZORDUA → UDALETXEAN 19:00ETAN

## Ehiza postuen enkanteak irailaren 23 eta 30ean

Sesteorako aukera irailaren 29an 20:00etan bukatuko da

### TTIPI-TTAPA

Aresoko udalak ehiza postuen enkantea antolatu du iraileko azken bi asteburueterako. Irailaren 23an, larunbatean, izango da lehenbiziko enkantea 19:00etan Udaletxean. Urtero bezala, 26 postu aterako dituzte enkantera. Gero, irailaren 29ra arte sesteorako aukera izango da. Udal ordutegian telefonoz deituta edo Udaletxera bertaruta egin daiteke eskaintza eta azken egunean, ohiko ordutegiaz gain, arratsaldean ere

20:00 arte izango da aukera. Bigarren enkantea irailaren 30ean egingo dute, 19:00etan Udaletxean. Ehiza postu guztiak txukuntzeko konpromisoa hartu du aurtien Udalak eta trukean ehiztariek 50 euroko tasa bat ordaindu beharko dute. Ez da ahaztu behar pasa den urtean 14.000 euroko irabazia izan zela ehiza postuen enkanterik.

### Kinto bazkaria

Azken urtetako ohiturarekin segiz, 1959 eta 1964 urte artean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute irailaren 30ean Pake Toki Elkartean. Hauek emango diote hasiera kinto bazkariaren denboraldiari.

### IRAILAREN 22RA ARTE

Kirol jardueretan izena emateko azken egunak

### TTIPI-TTAPA

Herrian bertan kirola eginez ongi pasatzeko aukera izango da aurtengo ikasturtean ere. Haur eta helduentzako ikastaroak antolatu dituzte eta izena emateko epea irailaren 22ra arte dago zabalik. Helduek *Funtzional Express* ikastaroa izango dute astelehen eta asteazkenetan 17:15etik 18:00etara. Haurrek berriz, *Jolas mugi* izango dute asteazkenetan, Haur Hezkuntzakoak 17:00etatik 18:00etara eta Lehen Hezkuntzakoak 18:00etatik 19:00etara. Astelehenetan, *Kirol mugi* izango dute Lehen Hezkuntzakoek 17:00etatik 18:00etara. Ikastaroei buruzko informazio gehiago [www.kirolmank.eus](http://www.kirolmank.eus)-en lor dezakezue.



ARGAZKIAK: E. IRAOLA

### 400 mendizale bildu ziren hamargarren mendi martxan

Hamargarren urteurrenak, parte-hartzaile kopuru borobila bildu zuen. Irailaren 3an 400 mendizale abiatu ziren goizeko 8etan herriko plazatik, 21 kilometroko ibilbidea osatzeko asmotan. Plazara ailegatutakoan herritarrek mimoz sukaldatutako zazpi paellak eta sagardo frexkoa zituzten esperoan, indarrak berreskuratzeko. Gustura agertu ziren parte hartzaileak eta arrakasta hori azaltzeko, beste behin ere elkarlana aipatu behar da. Proba aurretik guztia antolatzen, bezperan bidea markatzen, postuetan edaria eta janaria banatzen, paella egiten... herritarrek jo eta ke aritu ziren lanean. Bejondeizuela!



ARGAZKIA: JAIONE OLAZABAL

### 28 ikasle ariko dira Nazabal eskolan

Nazabal eskolan nabari da mugimendua, ikasturtea hasi baitute herriko 28 haur eta gaztetxok. Argazkian ageri dira eskolara lehenbizikoz joan diren ikasle txikienak: Irai, Telmo, Abel, Enara eta Nahikari. A ze boskote polita!

KIROLA → IZEN-EMATEA IRAILAREN 24RA ARTE

# Leitzuliaren bigarren edizioa irailaren 30ean

Egunean bertan ez da izena emateko aukerarik izanen

## JM BARRIOLA

Mendi bizikletaren gainean gozatzeko aukera izanen dute zaleek iraileko azken larunbatean. Aurrera Elkarteo Mendibil BTT taldekoek bigarrenez antolatu dute Leitzulia, 42 kilometro eta 1.400 metroko desnibel metatua duen ibilbidea osatuz.

09:00etan Leitzuko plazatik abiatuko dira eta 42 kilometroak egin ondok plazan izanen dute helmuga. Plazaolatik barna egingen dituzte lehenbiziko kilometroak baina hortik aurrerakoak Leitzuko kaxkoak zeharkatuz osatu behar dituzte. Ez da proba lehiakorra eta guztia



ARGAZKIAK: LEITZULIA

300 parte-hartzailearen muga jarri dute aurtengoan ere. laz baino emakume gehiago biltzea da erronka.

mendiko xenda eta basoetan barna egingen da, errepiderik ia zapaldu gabe. Bidean, edariak eskainiko dizkiete parte hartzaileei bi puntutan, Basakabin eta Uitziko gainean eta helmugan jan-edanak ere ez dira faltako.

18 urtetik gorakoei zuzenduta dagoen proba da eta ibilbideak duen

zailtasun maila dela eta alde zuzenetik prestatzea beharrezkoa dela adierazi dute antolatzaileek.

Izena emateko epea irailaren 24ra arte dago zabalik eta internet bidez bakarrik egin daitezke [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) helbidean. Egunean beren ez dute izena emateko aukerarik emanen.

Federatuta daudenek

15 euro ordaindu behar dituzte eta federatuta ez daudenek berriz, 18 euro. Trukean, parte-hartzaileek hainbat opariz betetako poltsa jasoko dute. Horretaz gain, parte hartzaileen erosotasunari begira, dutxak, bizikletak garbitzeko mangerak, apar-kalekuak... prestatuko dituzte.

## BERTSOLARITZA

Txapelketa Nagusiko final laurdenetako saioa urriaren 1ean

## TTIPI-TTAPA

Urriaren 1ean, igandean, Bertsolari Txapelketa Nagusiko final laurdenetako kanporaketa jokatu da Udal Kiroldegian. 17:00etan hasiko da saioa eta Agin Laburu, Iñaki Apalategi, Julio Soto, Oihana Bartra, Oihana Iguaran eta Unai Agirre ariko dira kantuan. Helduen sarrera 12 euro kostako da, 6-16 urte artekoek 6 euro ordaindu behar dituzte eta bertsozale elkarteko kideek 10. Saio honetako irabazlea azaroaren 12an Durangon jokatu den finalurreko saiora pasako da eta besteak puntuazioaren arabera erabakiko dira. Finala Barakaldoko BEC aretoan izanen da abenduaren 17an.

## FLASH

### Kirol ikastaroetarako izen-ematea zabalik

Kirol Ikastaroetan izena emateko epea irailaren 28ra arte egonen da zabalik. Biharamunean, irailaren 29an, ate irekien eguna antolatu dute herritar guztiak kiroldegira joatera gonbidatuz.

### 1.470 sinadura zinema berritzearen alde

Herriko hainbat eragilek zinema zaharra berritzearen aldeko sinadura kanpaina jarri zuten martxan. 1.470 sinadura bildu dituzte eta horiek irailaren 13an aurkeztu zituzten Nafarroako Gobernu Kultura sailean.

### Euskaltegian izen-emateko azken egunak

IKA euskaltegian izena emateko epea irailaren 22ra arte egonen da zabalik. Aurreko ikasturteetan bezalaxe, maila guztiak eskainiko dituzte, EGA, on-line eta baita autoikaskuntza ere. Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak dira.



ARGAZKIA: KAXKABELTZA ELKARTEA

### Euriak ez zuen moteldu pagotxen bila joateko gogoia

Kaxkabeltza herriko komertzianteen elkarteak stock azoka antolatu zuen iraileko bigarren asteburuan. Eguraldi kaxkarraren eraginez, plazatik pilotalekura lekualdatu zuten azoka eta bi egunez luzatu. Bertaratutakoek Kapritxo, Kulunka, Bi pauso, Ariztela, Leitzu Kirolak, Biok eta Garbi komertzioetako produktuak izan zituzten aukeran. Giro polita izan zen eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Zozketa bat ere antolatu zuten eta Ainarra eta Itziar izan ziren Lopeneako 2 otordu eta Belarra dendan masaje bat eskuratu zituztenak.

# GOIZUETA

GIZARTEA → INKESTA BIDEZ JASOTAKOARI ERANTZUNEZ EGIN DA ESKAINTZA

## Udal ikastaroetan izena emateko epea irailaren 22an bukatuko da

Eskulanak, Jumpfit, pilates eta total training/crosfit eskainiko dituzte aurten

### TTIPI-TTAPA


Ekainean webgune bidez egindako inkestaren emaitzetan jasotakoari erantzunez, herritarren eskaerak kontuan hartu eta beraien nahiak ziren ikastaroen aurrekontuak eskatu ditu Udalak. Eskulanez gain, ikasturte honetan, jumpfit, pilates eta crosfit ere eskainiko dira urritik maiatzera. Izen emateko epea irailaren 22an, ostiralean bukatuko da.

Gutxienez 8 pertsona eman behar dute izena taldea ateratzeko eta ikastaro guztiek plaza kopuru mugatua dute, 12 pertsona. Gehiagok izena emanen bahlute, beste talde bat aterako litzateke, betiere beste 8 pertsona egonez gero.

### BETIKO IKASTAROAK ETA ESKAINTZA BERRIAK

Eskulan ikastaroa ostiraletan emanen da Medikuaren etxean 16:30etik 19:00etara. 28 saio egingen dituzte eta prezioa 213,75 eurokoa da.

Jumpfit ikastaroa (trampolin baten gainean musikaren erritmoa jarraituz saltoak eta ariketak eginez burutzen den zuzendutako jarduera) astelehen eta asteazkenetan 17:30etik 18:30era egingen dute



ARGAZKIA: IÑAKI ETXEBERRIA

### Metroko plano batean baserrien mapa egin du Iñaki Etxeberria

Iñaki Etxeberria Aranaz herritarrek Goizuetako baserrien mapa egin du era berezi batean. Hiri handi bateko metroaren planoan ardatz hartuta baserrien izena eta kokapena zehaztu ditu. Hala ere idea ez da berea izan. «Orain bi urte Leitza antzeko planoan egin zuten eta bigarren bat ere egin zuten Areson. Eta guk zergatik ez egin Goizuetan? galdetu nuen eta horrelaxe hasi nintzen». Horrela hasi zen Iñaki lanean poliki poliki berak dioen bezala. «Ordu batzuk sartu ditut. Mapa hartu eta baserrien izenak biltzen hasi nintzen galdetuz eta nik nekienarekin. Eskema bat egin kokapenarekin arkatzez eta gero ordenagailura pasa nituen». Honelako lan bat egiteko laguntza behar izaten da eta hor bere aita aipatzen du Iñakik. «Aitak nik baino baserri gehiago ezagutzen ditu eta izenak ere bai. Goizuetako baserri guztiak bildu ditugu eta baita bordak ere. Hori bai bertan jendea baldin bada. Erdi eroriak baldin badaude ez ditut bildu». Jendearen laguntza ere izan du zuzenketak egiteko garrantzi eta planoan baliagarria izan daiteke baserrien kokapena ezagutzeko. «Goizuetako auzoen eta baserrien eskema bat da, erabilgarria ezagutzen ez dituenentzako eta baita ere medikuak joan behar baldin badu». Hori horrela izanik Udalak ere interesa izan du planoan eta eskatu zioten Iñakiri planoan osatzeko izen ofizialekin.

dantzen lokalean. Prezioa 312,15 eurokoa da eta 55 saio eskainiko dituzte.

Pilates ikastaroa bi ordutegi ezberdinetan eskainiko da dantzen lo-

### Ba al zenekien

Hamar egunen barrenean bi gotzainek bisitatu dutela gure herria? Abuztuaren 28an Donostia-ko Jose Ignacio Munilla Artikutza auzoan izan zen, eta irailaren 7an, berriz, Iruñeko Francisco Perez herrian barrena ibili zen.

kalean, goizez edo arratsalde. Astelehen eta asteazkenetan, 10:00 - etatik 11:00etara eta astelehen eta asteazkenetan, 18:30etik 19:30era. Prezioa 216,50 eurokoa da eta 55 saio egingen dituzte.

Total training/crosfit ikastaroa (gainkargen eta autokargen bitartez egingen den entrenamendua), azkenik, astelehen eta asteazkenetan eskainiko da 19:30etik 20:30era, zehazteke dagoen lekuan. 55 saioa egingen dira eta prezioa 216,50 eurokoa.

Izena emateko 16 urte eduki behar dira gutxienez eta epea kanpo ez da izen-ematerik onartuko. Zortzi ikasle baino gehiagok ematen badute izena prezio merkeagoa izanen da. Ordainketa bi zatitan egingen da, urrian eta urtarrilean.

Informazio eskuorriak herriko leku publikoetan eskuratu daitezke.

### Olatxoko erreka garbitzeko auzolana irailaren 30ean

Irailak 30ean, larunbat goizeko 9tan jarri du hitzordua plazan Udalak, Olatxoko erreka garbitzeko auzolanean parte hartzeko. Beharrezkoa den aseguria egiteko izena eman behar da aurretik Udalletxean. Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkie udalak herritarrei beraien parte hartzeagatik.



**BESTAK** → HIRU EGUNEKO EGITARAUA

## Irailaren 29tik urriaren 1era besta giroa nagusi Anizen

Baztan zopak ortziralean eta zikiro jatea larunbatean

### TTIPI-TTAPA

Ortziralean hasi eta igandean akituko dira aurten Anizko bestak. Herritarrak izanen dira bertze behin ere protagonistak mimoz prestatu duten egitarauan. Bisitarien zat, gan-torri autobus ibiliko da ortziralean herriz herriz.

### ORTZIRALEA, IRAILAK 29

- 11:00etan ezkil jotzea, eta altxaferoak.
- 11:30ean herri-krosa: haurrendako eta helduendako ibilbide desberdinak.
- 12:00etan aniztarren arteko esku-pilota txapelketa.

- 16:00etan frontenis txapelketa aniztarren artean.
- 18:00etan mus txapelketa.
- 20:00etan Mutil-dantzak
- 21:00etan Baztan zopak (eguraldi ederra eginez gero frontoian, bertze gisa elkarteak)
- 00:00etan dantzaldia Salaberri musikariarekin.
- Akitzeko zingar jatea.

### LARUNBATA, IRAILAK 30

- 11:00etatik aitzinera puzgarriak, Kani txutxu Anizko haurrendako eta tirolina.
- 14:00etan paella eta bizkotxo lehiaketa. Segidan, lehiaketako paella eta postreekin bazkaria.
- 15:00etan puzgarriak eta tirolina eta mus txapelketa.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Haur, gazte zein helduk primeran pasatzeko aukera izanen dute hiru egunez.

- 18:00etan txokolate jatea.
- 19:00etan herritarren arteko jokoak.
- Ondotik dantzaldia Hauspolariek taldearekin.
- 21:00etan afaria frontoian eta afalondoan dantzalia.
- Akitzeko zingar jatea.

### IGANDEA, URRIAK 1

- 11:00etan meza.
- Ondotik, bertako produktuekin prestatutako otordua eta lehiaketarat aurkeztu dituzten argazkiekin osatutako erakusketa.
- 14:00etan zikiro jatea Santxotena alaituta.
- 17:00etan II. Bingo

txapelketa.

- 18:00etan V. Boneta jaurtiketa.
- 19:00etan karaokea.
- Ondotik, zingar jatea eta suaren inguruan kantaldia.
- Akitzeko herriari itzulia gaizoak aniztarren eta zorionekoak katalanak.

**zergalan** | **asegi**  
asesores y consejeros de empresa  
enpresa kontseilari eta aholkulariak

**ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU**

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 - F. 948 580 648

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [info@zergalan.es](mailto:info@zergalan.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 - F. 948 451 304

TTIPI-TTAPA  
ALDIZKARIA  
SARE SOZIALETAN

**facebook**

[www.facebook.com/ttipi.ttapa](http://www.facebook.com/ttipi.ttapa)  
[www.facebook.com/ttipi.eus](http://www.facebook.com/ttipi.eus)

EGIN ZAITEZ GURE LAGUN



## BAZTAN

GIZARTEA → EZ DU KOSTU GEHIGARRIRIK ERAGINEN

# 2017ko udal aurrekontuak moldatu ditu Balleko Etxeak

147.045,62 euro baliatuko dituzte inbertsioetarako

## TTIPI-TTAPA

2016ko kontuak likidatu ondotik, aurrekontuen moldaketa proposamena aurkeztu du Balleko Etxeak. Horren arabera, 147.045,62 euro bideratuko dituzte inbertsioetarako eta finantziaroki bideragarriak izanik, beren gauzapean ez du kostu gehigarririk eraginen. Inbertsio hauek aurreikusten dituzte:

**Almandozen** Itturri ondoan autobusen geroak egingen da. Obra hori aprobetxatuz, bertan dagoen merendaleku tipia geroak eraberritzea barnean sartuko da, **lehorpeko tokia** sortuz.

Udal eraikinetako energia eraginkortasuna hobetzeko ildoari jarraituz, **Arraiozko eskolaren leihoak aldatuko dira**. Aldaketarekin ikasleen erosotasuna hobetu eta ikasketarako ingurune egokiagoa erdietsiko da.

Lekarozeko lizarango bidean, Larraldeko bidean, Irulegion eta Lezaiben **kanadiar erako pasabideak** egingen dira.

Elizondoko **Erabeta-ko ur-biltegia behin-betiko egokituko** da auzotarrek kalitatezko ura izan dezaten eta Iturri-Ederrak inguru horretarako etxei ura eman diezaien. Horren ondorioz Arlako iturburuak ematen dituen arazoak saihestuko dira.

**Aldinekoen zaintza-**

**ren argazki orokorra** egin eta horretan zahar etxearen funtzioa zein izanen den zehaztu. Plan honek Baztango zahar etxearen erreforma egiteko oinarria paratuko du.

Nafarroako Osasun Publikoko Institutuak agindurik **Arizkongo Bergara eta Aintzialde auzoko ur-biltegiaren kloratzaileak** paratuko dira; beharrezkoak diren etxolak eta gainerako osagarriak eginez.

**Hiltegiaren ke eta lurrunak erazteko sistema** paratuko da.

Baztan haur eskolako sukaldetan bertan sukaldatu ahal izateko egokitzapenak egingen dituzte. Elikadura hezikuntza proiektuan sartzearaz gain, otordu osasungarriagoak egin eta bertako ekonomia pizteko balioko du.

**Telefoniako plegua prestatzea**, Udalak dituen telefonia kontratu desberdinak, interes publikoa eta udalaren beharrik kontuan hartuz. Horretarako ezagutza teknikoa duen aholkularitza kontratatuko dute. Azken helburua udalaren beharretatik hoberen eta merkean egokitzen den telefonia kontratua egitea da.

**Arizkongo Bergara eta Aintzialde auzotako udalaren errepide zatian brea** emanen da, auzo horietarako irribidea hobetuz. Gaur den egunean bide zati hori aski egoera txarrean dago. Aipatu bi auzoetan 80 biztanle inguru bizi dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Joxe Mari Apezetxea margolari erratzuarra hil da 90 urterekin

Baztango Margolariak taldeko sustatzaileetako bat izandakoa, irailaren 3an hil zen bere etxean, Zubietan. Hantxe eskaini zuen, gainera, uda honetan bere azken margolan erakusketa, Baztango Artearen Ibilbidearen baitan. Euskal margolarien artean nortasun berezia eta ibilbide luzea egin du Apezetxea eta hori guztia aintzat hartuta, omenaldia ere jaso zuen 2015ean Baztan Ikastolaren eskutik, Artea Oinezaren barne. Baztango eta inguruko pintore anitzen irakasle izan zen Apezetxea. Cezanne izan zuen eragin nagusi eta naturan jasotakoa ideiak eta zertzeladak pintura bilakatzen zituen.

## IRAILAREN 29TIK URRIAREN 1ERA

Ondarearen inguruko solasaldia Arizkunenean eta bisita gidatuak Baztango Museon

### TTIPI-TTAPA

*Ondarea eta natura: aukeraz betetako paisaia* bat izenburupean ospatzen ari diren 2017ko Ondarearen Europako Jardunaldien harira, irailaren 29an, ortzirale arratsaldeko 7etan *Eraikin historikoak Baionatik Iruñera Baztango Donejakue bidetik* solasaldia eskainiko dute Pepe Fernández

D'Arlas eta Jenaro Arretxea Iriarte adituek Arizkunenean. Donejakue Bidearen Lagunak elkarteak antolatuta du solasaldia.

Irailaren 30ean eta urriaren 1ean, Baztango Museoren sarrera doan izanen da eta 12:00etan bisita gidatuak eskainiko dituzte, larunbatean gaztelaniaz eta igandean euskaraz.

## KULTURA

*Asteazkenhaur Zikloa* abian liburutegi publikoan

### TTIPI-TTAPA

2017ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan *Asteazkenhaur Zikloa* antolatu du Udaleko Kultura Batzordeak. Izenburuak dioen bezala, irailaren 27tik azaroaren 1era, asteazkenero 17:00etan haurrentzat ipuin kontalaria, magia, sabeliztuna... izanen dira Baztango liburutegi publikoan. Sarrera doan izanen da.

**Irailaren 27an** Imanol Ituño magoak *Magia parrastan* ikuskizuna eskainiko du.

Urriaren 1ean Lupe Lekuona ipuin kontalaria izanen da liburutegian. **Hilaren 4an** *Animalien ipuinak*, **11n** *Haga Biga Higa*, **18an** *Hanhemengo ipuinak* eta **25ean** *Eta hala bazar edo ez bazar* ipuinak kontatuko ditu.

**Azaroaren 1ean**, azkenik, Elbi eta bere panpinak sabeliztunak *Nire maletatxoan* ikuskizuna eskainiko du.

LEHIAKETAK → IRAILAREN 23 ETA 24AN ELIZONDON

# Behi azienda lehiaketak eta enkanteak 30. edizioa beteko du

Hogeita sei abeltegietako 210 azienda aurkeztuko dira lehiaketara

## TTIPI-TTAPA

Pirinioko behi azien den nazio mailako Lehiaketa-enkanteak 30. edizioa beteko du irailaren 23 eta 24an Elizondon, Baztango Udalak eta Aspina eta Conaspi erakundeek, berzte hainbat babesleren laguntzarekin antolatua. Irailaren 18an egindako aurkezpenean aipatu zuten, 26 ganadutegitako azienak espe-ro dituzte, 15 Nafarroakoak, 6 Bizkaikoak eta 5 Gipuzkoakoak. 210 azienda aurkeztuko dituzte lehiaketara eta berzte 30 saltzeko jarriko dituzte.

Larunbat goizeko 9:00ak baino lehen sartuko dira azienak eta ordu horretatik aitzinera hasiko dira txanda kalifikatzaileak. 10:00etatik 14:00etara eta



ARGAZKIA: NEREA BEGINO

Nerea Begino igantziarrak irabazi du lehen aldiz antolatutako argazki lehiaketa.

17:00etatik 20:00etara Baztango artisautza eta nekazaritza elikagaien azoka egingen dute. 17:30etik 20:00etara behi azienaren erakus-

taldia eta txanda kalifikatzaileak egingen dira.

Igandeko egitarauari dagokionez, 09:00etatik 12:00etara behi-azienaren erakustaldia

eginen dute. 10:00etatik 14:00etara artisautza eta nekazaritza azoka egingen da. 11:30ean, Nafarroako aratxea haragi eta Kortariko gasna dastaketa. Azpilkuetako eskolako Guraso Elkarte arduratuko da horiek banatzeaz. 12:30ean behi-azienda enkantea eta 13:00etan azienda lehiaketaren sari eta garaikur banaketa egingen dute.

Irailaren 22an, ortzira lean, abelburuak Merkatuko Plazan sartzeko aukera izanen da 15:00etatik aitzinera.

Lehiaketa-enkantea girotzeko, irailaren 18tik 24ra pintxo, salda eta bustiez gozatzeko ibilbide bat egiteko aukera eskaintzen dute 13 jatetxe eta ostatutan: Olaben Loretxo; Orozoko Hotel Urgain; Elizondon Sobrino, Goizalde, Casino, Futbolin, Karrika eta Mendi; Iruritan Olari; Elbeteko Ostata; Arizkun Bixta Eder eta Uxo eta Ordoki auzoan Ordoki Erretegi-an.

## FLASH

### Argazki erakusketak Arizkunenean

Udazken honetan zenbait argazki erakusketak egingen dituzte Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Haste-ko, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kultura Batzordeak, 2017ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan antolatua, Iñaki Vergararen *Benin, kale gorriko haurrakerakusketa* izanen da ikusgai irailaren 18tik 29ra. Urriaren 2tik 13ra, Ramon Serranoren *Etorkizuna gaur hasiko da* erakusketa antolatu du Vicente Ferrer Fundazioak. Urriaren 16tik 31ra, Antonio Ruizen *Bigarren mailako errefusiatuak* erakusketa antolatu dute Ezkerraberi Fundazioak, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kultura Batzordeak, 2017ko Arte eta Kultura egitarauaren baitan.

### Euskal baleen triskantza

1615ean Islandian gertatutakoaren inguruko dokumentala eskainiko dute urriaren 6an, 20:00etan Arizkunenean. Ondotik, Beñat Iturrioz eta Eñaut Tolosa zuzendariekin solasaldia izanen da.

tanatorios  
**IRACHE**

24 ORDUKO TELEFONOA  
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)  
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)  
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALIETATIK EDOZEIN HERRIETARA  
\*\*\*\*\*  
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • Tel. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

# BAZTAN

PRENTSAURREKOA → ABUZTUAREN 31N, EHBILDU ETA EZKERRAKO ORDEZKARIEK ESKAQINI ZUTEN

## Palacio de Aroztegiak salaketa jarri du Tokiko Gobernu Batzordeko kideen kontra

Prebarikazioa eta diru-publikoaren erabilera makurra egitea salatzen diete

### TTIPI-TTAPA

Palacio de Aroztegiak salaketa jarri du Baztango Tokiko Gobernu Batzordea osatzen duten EH Bildu eta Ezkerrako borts hautetsien kontra. Prebarikazioa eta diru-publikoaren erabilera makurra egitea salatzen diete, ekainaren hasieran Aroztegiako Komantxei Aroztegiako proiektu urbanistikoaren kontrako kanpaldia egiteko Elizondoko plaza uzteagatik eta horretarako argia emateagatik.

### PRENTSAURREKO AGERRALDIA

Egoeraren berri emateko, prentsaurrekoa egin zuten EHBildu eta Ezkerrako ordezkariak abuztuaren 31n Iruñean. Bertan adierazi zutenenez, azken salaketak «Palacio de Aroztegia enpresak Baztango ordezkari instituzionalen kontra abiatu duen jazarpen edo pertsekuzio judizialaren pausu berria da». Aspaldikoa da bi aldeen arteko tirabira: «Garbiñe Elizegi lehengo legealdiko alkatearen kontra pelotazo urbanistiko errateagatik salaketa paratu zuten; ondotik, oraingo alkatearen eta Elizegiren kontra prebarikazio sa-



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango EHBildu eta Ezkerrako ordezkariak agerraldia egin zuten egoeraren berri emateko.

laketa eta, azkena, Tokiko Gobernu Batzordeko EH Bildu eta Ezkerrako borts hautetsien kontrakoa».

### «PLAZA PUBLIKOAK HERRITAR OROREN ESKU»

Baztango Udalak espazio eta plaza publikoak, «bereizkeriarik gabe» herritar ororen esku jartzen dituela azaldu zuten: «Baztandar guztiak dakiten bezala, Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordearen erabakien bidez plaza eta plazako argia zerenahi ekitaldi eta hitzordurako uzten ditu: negu sasoiaren igandearekin egiten diren bailabletarako, bigarren eskuko azoketarako, artisauen ferietarako, esne sektorearen egoera salatzeko manifestazio akaberako ekitaldirako, Blues elkartearen kontzertuetarako, erlijio ebangelistako fededunen bilkuretarako, errege-kabalgatarako, Elizondoko herriari beste-tarako... Eta, bistan de-

nez, Aroztegiako proiektu urbanistikoaren sustatzaileek proiektuaren aldeko herritarrek plazan zerbait egin nahiko balute, baimena izanen lukete».

Instituzio publikoak, interes partikularretatik urrun, «herritarrek emandako legitimitate demokratikoan» oinarritu behar direla defendatzen dute: «Palacio de Aroztegiak, bere interes ekonomikoetatik makurtzen diren ordezkariak eta instituzioak nahi ditu. Baina baztandarrak eta, bistan gu, botere ekonomikoetatik independenteak diren instituzioak nahi eta defenditzen ditugu». Eta modu berean, «autonomia municipalaren defentsa sutsua egiten» segitu nahi dutela gaineratu zuten, «oraingoa herriko espazio publikoaren erabilera baimentzeaz buruz». Palacio de Aroztegiako promotore-

ak afera guzti honetan «Baztango erakunde gaitetik» pasatu nahi dutela salatu zuten. «Horretarako udal agintarien kontra judizialki jo dute, oraingoa, Tokiko Gobernu ordezkarien kontra eta plazaren erabileraren udal eskumenaren kontra. Palacio de Arozte-

### GOBERNU BATZORDEKO KIDEEN ERANTZUNA

«Palacio de Aroztegia enpresak Baztango ordezkari instituzionalen kontra abiatu duen jazarpen eta pertsekuzio judizialaren pausu berria da».

giak garbi izan behar du botere ekonomikoak ez dituela herritarren ordezkariak diren hautetsiak menpean hartzen ahal; eta ez gaituztela menpean hartuko». Eta etorkizunean hala segitzeko asmoa dute: «udalaren autonomia eta hirigintza eskumenen alde eta, bistan dena, herritarren behar eta adierazpenerako espazio eta plaza irekien alde jarraituko dugu, nahi duen edo eskatzen duen edozein baztandarrek erabiltzeko aukera izan dezan».



UTZITAKO ARGAZKIA

### Onddo galanta Arizkunen

Ez dago jakiterik aurtengo denboraldia nola joanen den baina Arizkongo Iker Etxeberriak estreinaldi bikaina izan du, 1,250 kiloko onddo ederra bilduta.

GIZARTEA → KULTURA BATZORDEAREN ESKUTIK

# Udal ikastaroetan izen-emateko epea irailaren 21etik 25era irekiko dute

Zura lantzen, xaboia edo ogi ekologikoa egiten, musika-tresna ezberdinak jotzen, birziklatuz sortzen edo margotzen ikas daiteke aurten

## TTIPI-TTAPA

Aurten ere ikastaro eskaintza zabala pres-tatu du Udaleko Kultura Batzordeak eta izen-emateko epea irailaren 25etik 29rako astean irekiko da, astelehenetik ortzirralera 07:30etik 15:00etara Arizkunenean.

**Zura lantzeko** ikastaroa Mikel Okiñenak eskainiko du asteazkenetan 09:30etik 13:00etara Arizkunenean, urriaren 18tik aitzinera. 20 saio egingen dituzte, 70 ordu denera.

**Hasiberriendako xaboi, erromeri-alkohol eta txanpu solidoa egiteko** lau orduko tailerra urriaren 17an, asteartean 16:00etatik 20:00etara eskainiko du Elena Ezkurdiak Arizkunenean.

**Arituendako xaboi bereziak eta txanpu solidoa egiteko** tailerra, berriz, urriaren 24an, asteartean 16:00etatik 20:00etara eskainiko du Elena Ezkurdiak berak.

**Hasiberriendako eta arituendako ata-**



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Abesbatza tiki ikastaroa Iruritan eskainiko dute aurten ere.

**bala** ikastaroa eskainiko du Shanti Diaz Carmonak urriaren 18an hasita, asteazkenetan 17:00etatik 18:00etara (20 ordu denera, 8 urtetik goitikoendako).

## MUTIL-DANTZAK ETA BAZTANGO DANTZAK

**Mutil-dantza eta Baztango dantzen** ikastaroak, hastapenetik goi mailara antolatatu du Jo ala Jo Baztango Dantza Eskolak. Informazio gehiago [joalajo@gmail.com](mailto:joalajo@gmail.com) edo 618 460694 (Ane).

**Hasiberriendako eta arituendako gaita** ikastaroa eskainiko du Tomas Diaz Peñalvak urriaren 18an hasita, asteazkenetan 18:00etatik 19:30era.

**5-8 urte bitarteko haurrentzat 'Birziklatuz sortu'** tailerra es-

kainiko dute Amaia Zinkunegik eta Ines Gerekak urriaren 17tik martxoaren 22ra, asteartean 17:00etatik 18:30era.

**Ahots teknika ikastaroa** eskainiko du Isabel Lakarrek urritik ekainera, astelehenetan 18:00etatik 19:00etara eta 19:00etatik 20:00 -

etara, Elizondo Abesbatzak antolatuta. Izen-ematea 670 322137 telefonoan.

**16 urtetik goitikoendako Scrapbooking** ikastaroa eskainiko du Helena Xuriok azaroaren 27an eta 28an, 16:00etatik 19:30era (7 ordu denera).

**16 urtetik goitikoendako margo ikastaroa** eskainiko du Iciar Mikelperizenak asteartean 19:00etatik 21:00etara, urriaren 10etik aitzinera (22 ordu).

## ABESBATZA TTIKIA ETA OKINTZA EKOLOGIKOA

**Abesbatza tiki** ikastaroa eskainiko dute Kristina eta Maki Urta-sunek Iruritan urritik maiatzera. Asteazkenetan izanen da, tikiak 18:00etatik 18:45era eta koxkorak 18:45etik 20:00etara.

**16 urtetik goitikoendako okintza ekologikoari** buruzko ikastaroa eskainiko du Xabier Akizuk azaroaren 17, 18, 24, 25 eta abenduaren 1 eta 2an (ortziraletan 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 09:30etik 17:30etara, 30 ordu denera).

**Emakumeentzat musikoterapia** tailerra eskainiko du Haizea Loirak urriaren 17tik abenduaren 19ra, asteartean 20:00etatik 21:40ra (15 ordu denera).

**Mármoles SOULE HILETA ARTEA**

T. 948 453 444  
M. 688 605 182  
ARIZKUN

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ  
T.948 452 143 · 948 452 449  
info@harrilan.com  
www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

**HARRI LAN, S.L.**  
ESTUDIO DE DISEÑO

BAITA ERE HORMIGOI INPRIMATUA →

## BAZTAN

OSASUNA → UDAZKENARI BEGIRA

# Hainbat tailer eta ikastaro antolatu ditu Elizondoko Osasun Zentroak

Menopausiari buruz, osasuntsu zahartzeko, estresa gainditzeko edo bizkarra zaintzeko, bertzeak bertze

## TTIPI-TTAPA

Elizondoko Osasun Zentroak hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu udazkenari begira.

**Irailaren 20an eta 27an**, asteazkenetan 10:30etik 12:30era *Osasuntsu zahartu* ikastaroa egingen dute.

**Urriaren 4 eta 11n**, asteazkenetan 10:30etik 12:30era *Menopausia* tailerra egingen dute.

### ESTRESA ETA ANTSIETATEA GAINDITZEKO TAILERRA

**Azaroaren 15, 22 eta 29an**, asteazkenetan 10:30etik 13:00etara *Estresa eta antsietatea gainditzeko tailerra*



UTZITAKO ARGAZKIAK

### Luis Mari Ruiz gogoratu dute Belaten Donejakue Bideko Lagunek

Donejakue Bideko Lagunak elkarteak Belateko basilizan ongi merezitako omenaldia eskaini dio berriki hil-dako Luis Mari Ruiz Mendibururi. Cesareo Soule eta Pepe Fernandez D'Arlas elkarteko kideek oroigarria eman zioten Luisa Mariren alarguna den eta bere lanaren lekukoa hartu duen Bernadette Mihurari. Ramon Apezetxea Almandozko apezak meza eskaini zuen eta berak ere gogoratu zuen Ruiz Mendiburuk Urdazubi eta Baztango Donejakue Bidea berreskuratzeko egindako lan handia. Berrehun bat lagun bildu ziren basiliza inguruan eta *Erromesaren Kantua* abestuz akitu zen ekitaldi hunkigarria.

eginen dute Elizondoko Osasun Etxeko erabilera anitzeko aretoan. Tailer honen helburuen artean, estresa zer den eta sortzen duen jakitea, erlaxatzeko teknikak ikasi eta praktikatu edo gure bizitzako aldaketak pentsatu, tentsio gutiago nola sortu eta sortutakoak nola ateratu jakiteko daude.

**Azaroaren 16an eta**

**23an**, ortzegunetan 12.00etatik 13:30era *Zaintzailearen* tailerrak egingen dituzte.

**Abenduaren 13an**, asteazkenean 11:00etatik 13:00etara *Bizkar tailerra* antolatu du.

Izen-emateak Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832 eta 948 581833 telefonora deituz egin behar dira.



ARTXIBIKO ARGAZKIA  
Zaintzaileei zuzendutako tailerrak ere egingen dituzte Elizondoko Osasun Zentroan.

**JATETXE-ERRETEGIA**  
**MONTXO**  
**OSTATUA-TABAKO-DENDA**

Egunero irekia  
09:00etatik  
02:30era

Dantxarinetik  
2 km. tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK  
MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK  
ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039  
montxoblanco@gmail.com

**VENTA PEIO**

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA    Dantzarinea 31712 URDAX    Ibardin 31780 BERA    Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac    maroquinerie

Landibar

restaurant    super

prek a post

cadeaux

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 2AN

## Elkarteen eguna ospatu dute Larrekon

Herriko 90 elkarteetarik erdia hor zen, Senpere bizi dela ederki frogatuz

**Pierre BASTRES**

Herriko Etxeak antolatuta, goizeko 9 ornetarik eguerdiko oren batetarat iragan zen ekitaldia irailaren 2an. Elkarrekin bakoitzak bazekun bere tokia aitzine-tik prest, zeinean iragaileri beren aribideak erakusten ahal ziozkaten. Honenbertzez, bazen zer ikusteko edo zer aditzeko ere. Izan ere, harrigarria zen ikustea

zenbat arlo motako elkarrekin baden herrian, usaiaikoak edo ez-ohikoak: kantu taldeak, Zirikolat dantza elkarteak, SPUC kirola, kapoeira, xake jokoa, natura edo izadia ezagutzeko ibilaldiak antolatzen dituen, zunba, miniatuazko itsas-ontziak egiten dituen...

Herritarren aldetik, familia ainitz ibilki ziren pasabideetan, jakinminenez etorriak edo berdin izena emaitako elkarrekin batetan. Adibidez, Zirikolat dantza taldeak arrakasta ederra izan du, eta Marie-Hélène arduradunak erraiten duen bezala, «guraso ainitz etorri zaizkigu haurren izenen emaiterat,



ARGAZKIAK: PIERRE BASTRES

Herriko elkarten ordezkariak, Larrekon egindako bilkuran, pozik gara bai, eta oraino gehiago mutiko frango izanen dugulakotz aurtan». Atseginez mintzo da ere Elur Alberdi antolatzailea, bi gantorrien artean: «Egia erran, ezin hobeki iragan da, ageri da elkar-

teen sarea azkar eta sendoa izaiteaz gain, bertzeeri idekia zaiote ene ustez. Jendeen arteko trukaketa gustura ikusten dut, emankorra da beti hori. Bertzalde, Larreko gela ere arras egokia da, aski zabala

da, eta horri esker kapoeira edo zunba erakustaldiak egin ahal izan ditugu».

Nolaz ez, goizaldia burutu da zintzur bustitze on batekin, goizago hasitako solasak finitzeko.

KIROLA → BOTE LUZEAN SENPERTARRAK

## Eskual Herriko txapelgoa garaipen batez hasi dute

Senpereko Lapurdi 1 nagusitu zaio Oiartzungo taldeari, 7-3

**Pierre BASTRES**

2016an sortutako Eskual Herriko Bote Luze txapelgoa hasi da berriz. Gan den urtean txapelkun atera zen Senpereko taldea, eta ongi hasi dute sasoin

berria, txapelkun-ordea garaituz Senpereko pilota plazan. Aurten ere, Bixente Fagoaga, Patxi Thicoipe, Daniel Brave, Eneko Bessonart, Pantxo Valencia, Seb Etcheverry eta Filipe Otegi atsegin eta emaitzen bilat lehiatuko dira Gipuzkoa 1, Bizkaia eta Baxe Nabarreraren kontra lehen fasean. Gero jokatuko dira finalerako partidak, eta abendua gabe finituko da txapel-

keta. Bixenteren erranetan, «Bote Luzea laxoa bezalakoa da baina esku huska hartzen da, eskularrik gabe. Bortz jokalaridira taldeka, partida batek indar asko galdegiten dautzu. Nik joko hau ezagutu dut gan den urteko txapelketan parte hartuz Senpereko berte lagunekin, eta betiereko oroituko naiz txapelketaren finalaz, Leitzan. Ez nuen sekula ikusi holako



ARGAZKIA: BIXENTE FAGOAGA

Senpertarrak txapelkun iaz, Leitzako pilota plazan.

giroa pilota plaza batean!». Bixentek baino esperientzia gehixeago du Enekok, zeren eta txapelgoa sortu aitzin «herriko bestetan aritzen ginen noizean behin lagun batzuekin, Ellande Alfarok antolatuta. Hori esker harremanetan sartu gara Oiartzungo elkarrekin, eta ho-

riek proposatu daukute ekipa baten sortzea txapelgo berrian parte hartzeko. Herriko bestetan, maiz eremua berlarrezkoa eta ttikia da, partida ofizialean aldiz pilota plazetan aritzen gara, 65 metroko luzerako eremuan. Ez da gauza bera, baina arras gustukoa dut!».

## GIZARTEA

LANA → CEDERNA-GARALUR-EK ANTOLATUAK NAFAR LANSAREAREN LAGUNTZAZ

# Enpresa ttiki eta autonomoei zuzendutako ikastaroak prest

Donezteben, Leitzan eta Elizondon ere eginen dituzte



henean 10:00etatik 14:00etara, *Ekintzaitzari buruzko tailer praktikoa, turismo sektoreari bideratua* tutoriala eskainiko dute Zubirin, Esteribarko udalean. Informazio gehiago eta izen-ematea 639 905357 telefonoan edo [erro-aezkoa@cederna.es](mailto:erro-aezkoa@cederna.es)-en.

**Urriaren 23an**, astelehenean 10:00etatik 14:00etara *Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak* betetzeko tutoriala eskainiko dute Leitzako Udaltxean. Informazio gehiago eta izen-ematea 617 609328 telefonora deituz edo [mendialdea@cederna.es](mailto:mendialdea@cederna.es) helbide elektronikotan egin daiteke.

## TTIPI-TTAPA

Cederna-Garalur erakundeak, Nafar lansarearen laguntzaz bereziki enpresa txikiei eta autonomoei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu.

**Urriaren 9an**, astelehenean 10:00etatik 12:30etara *Nola diseinatu fakturak zerga-betebeharrak* betetzeko tutoriala eskainiko dute Donezteben, Malerreka-ko Mankomunitatearen egoitzan. Informazio gehiago eta izen-ematea 606 431357 telefonoan edo [bidaso@cederna.es](mailto:bidaso@cederna.es) helbide elektronikotan.

**Urriaren 16an**, astele-


**Azaroaren 6an**, astelehenean 10:00etatik 12:00etara *Nola egin ogasunarekin egin beharreko tramiteak online: ziurtagiri digitala eta Nafarroako Gobernua*ren laguntza-programa tutoriala eskainiko dute Zaraitzuko Iize herriko Cederna-Garalurren bulegoan. Informazio gehiago eta izen ematea 607678342 telefonoan edo [roncal-salazar@cederna.es](mailto:roncal-salazar@cederna.es) helbide elektronikotan.

**Azaroaren 13an**, astelehenean 10:00etatik 14:00etara *Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak* betetzeko tutoriala eskainiko dute Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Informazio gehiago eta izen-ematea 606 408613 telefonora deituz edo [baztan@cederna.es](mailto:baztan@cederna.es) helbidean egin daiteke.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua



Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

## JOXEMARI APEZETXEA FAGOAGA

Goizean argi hastean, gu zure ondoan egonda ere abiatu zara Zubieteko logelatik, arin eta zamarik gabe abiatu gu goibel eta minbera geldituz. Zure paletan ezagutu gabeko argitasun batek bildu zaitu orain. Gure bizitza margotzen laguntzeagatik esker mila aunitz aite!

*Eskerrak Joxemari eta gure ondoan egon zareten guzietei.*

ERRATZUKO XUBIETEKOKAK



## Beñat ETCHART VERDU

Urdazubin, 2011ko urriaren 6an  
VI. URTEURRENA

*Ilargiraino eta buelta  
Maite zaitugu*



*Beti gure bihotzean*

AITA, AMA, JOKIN ETA FAMILIA GUZTIA



## Agustin PORTU ETXABIDE

Beran, 2016ko irailaren 28an

I. URTEMUGA

*Gure bihotzean zaude.*

ZURE FAMILIA

Bere aldeko meza urriaren 1ean eginen da, Berako San Esteban Elizan, 10:00etan.



## Maite ARBURUA JIMENEZ

I. URTEMUGA

*Gero arte ezpainetan orain gure ametsetan bizirik zaude benetan zeruko izar ederretan eta gure bihotzetan.*

ZURE FAMILIA







## EZKONTZAK

**Ivan Ramos Marques** eta **Alicia Perez Pikabea**, Donostia eta Irungoa, Etxalarren irailaren 2an.  
**Francisco Javier Ballarena Perurena** eta **Gizane Sola Garcia**, Erratzu eta Arizkungo, Igantzin irailaren 2an.  
**Ivan Leatxe Eseberri** eta **Argadi Estabolite Ortiz**, Iruñeakoak, Igantzin, irailaren 9an.  
**Ander Lizarralde Jimeno** eta **Miriam Altzuri Lasarte**, Oiartzungoa eta Iturrengo, irailaren 8an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN

Urte osoan 24 orduko zerbitzua  
Beilatoki zerbitzua Bortziritan  
baita eskualdeko etxeetan ere  
T. 948 05 90 90

## SORTZEAK

**Anaitz Vicente Onsalo**, Leitzakoa, irailaren 7an.  
**Hegoi Garmendia Irigoien**, Urrestilla eta Arantzakoa, irailaren 5ean.  
**Kira Pitarch Alkorta**, Zugarramurdiakoa, irailaren 1ean.  
**Amaiur Aranburu Onandia**, Lesakakoa, irailaren 8an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*



## HERIOTZAK

**Jose Mari Apezetxea Fagoaga**, Erratzukoa, irailaren 2an, 90 urte  
**Petra Irungarai Dolagarai**, Iruridakoa, irailaren 2an, 98 urte.  
**Bittori Pikabea Altzugarai**, Lesakakoa, irailaren 4an, 90 urte.  
**Fermin Isidro Otxoteko Martiarena**, Lesakakoa, irailaren 4an, 90 urte.  
**Jose Ramon Blanco Hidalgo Montxo**, Urdazubikoa, irailaren 4an, 57 urte.  
**Unai Mutuberria Otermin**, Saldiasakoa, irailaren 4an, 13 urte.  
**Julia Mendiburu Goienetxe**, Azpilkueetakoa, irailaren 5ean, 88 urte.  
**Joaquin Larretxea Leiza**, Arantzakoa, irailaren 8an, 62 urte.  
**Jabier Sagaseta Sagaseta**, Donamariakoa, irailaren 9an, 63 urte.  
**Victoriano Neol Lazkano**, Arizkungoa, irailaren 10ean, 83 urte.  
**Ricardo Ariztegi Telletxea**, Lesakakoa, irailaren 11n, 86 urte.  
**Maria Asuncion Dufurrena Etxenike**, Erratzukoa, irailaren 11n, 82 urte.  
**Maria Luz Frutos Sogo**, Berakoa, irailaren 11n, 76 urte.  
**Maite Ballarena Erramuzpe**, Elizondokoa, irailaren 13an, 86 urte.  
**Rosario Mixelena Larretxea**, Arantzakoa, irailaren 13an, 88 urte.



## Unai MUTUBERRIA OTERMIN

2004/03/11-2017/09/04

*Kuku gazte bat joan zaigu  
Goizegi zerura hegan  
Izar ttiki bat piztu da  
Saldiasko aldean  
Negua hotza eta  
Gaua beltza denean  
Zure irriak bezela  
Argitu gaitzala bidean.  
Aio, Unai. Gorde gure etxea.*

**ZURE FAMILIA**



## Unai MUTUBERRIA OTERMIN

Saldiasen hil zen, 2017ko irailaren 4an,  
13 urte zituela

*Betiko gure bihotzetan  
ez zaitugu ahaztuko.*



**DONEZTEBE**  
FUTBOL TALDEA



## Unai MUTUBERRIA OTERMIN

2004/03/11-2017/09/04

*Beno, Muttu, ze bizi gogorra  
tokatu zaigun oraingun.  
Gure ingurutik joan zara eta  
denok gelditu gara ilun.  
Nahiz eta ez egon hemen gurekin,  
beti gure bihotz barrun.  
Ez dugu sekula atzanduko,  
zure irri hori, lagun.*

**Zure ikaskideak**

**DONEZTEBEKO MENDAU INSTITUTUKO GURASO ELKARTEA,  
IRAKASLE, IKASLE ETA GAINERAKO LANGILEEN PARTETIK.**

HERRI KIROLAK → IRAILAREN 9AN

# Bizkaia txapelkun eta Nafarroa bigarren Zazpi Herrialdeen txapelketan Saran

Lesakako Beti Gaztek garaipena lortu zuen sokatiran Nafarroarentzat

TTIPI-TTAPA | SARA

Bizkaiak irabazi zuen irailaren 9an Sarako kiroldegian jokatu zen Zazpi Herrialdeetako txapelketa. Espero bezala, aurten ere Zube-roak ez du txapelketan parte hartu eta hortaz, sei herrialde lehiatu dira. Nafarroa Garaia azpitxapelkun izan da.

Azken urteotan lehia estua izan da Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoaren artean eta bizpahiru punturen barrenean sailkatu dia. Aurten, ordea, lau puntuko alde atera dio Bizkaiak Na-



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazteko sokatira taldearen garaipena ez zen aski izan Nafarroak irabazteko.

fardoari eta zortzikoa Gipuzkoari. Laugarren posturako borrokan Lapurdi nagusitu zaio Arabari, nahiz eta araba-

rrek bi probatan garaipena lortu zuten. Nafarroa Beherea seigarren izan zen.

Nafarroak bi garai-

pen lortu zituen, zaku lasterketan eta sokatiran, Lesakako Beti Gazte egindako lanari esker. Arpanan, ordea,

bigarren izan ziren favorito ziren Barberena anaiak eta aizkoran ere, bigarren izan zen Iker Vicente, Aitzol Atutxa bizkaitarraren ondotik.

Bizkaiak, arpanan eta aizkoran ez ezik, koxkor biltzen eta orga jokoan ere garaipena lortu zuen. Erran bezala, Arabak bi garaipen lortu zituen, ingude altxatzen eta txingetan. Gipuzkoak lasto altxatzen lortu zuen irabaztea.

LAU PUNTUKO ALDEA

Gauzak honela, Bizkaiak irabazi zuen Zazpi Herrialdeetako txapelketa, 47 punturakin; Nafarroa Garaiak 43 eskuratu zituen, Gipuzkoak 39 puntu, Lapurdik 33 puntu, Arabak 31 puntu eta Nafarroa Behereak 15 puntu.

ARTE MARTZIALAK → ESKUALDE OSOAN

## Kenpo-kai ikasteko aukera bada aurten ere

Bera, Etxalar, Ituren, Sunbilla, Elizondo eta Urdazubin

TTIPI-TTAPA

Haurrek eta helduek aurten ere kenpo-kai ikastaroak egiteko aukera izanen dute eskualde osoan. Zehazki Be-

ra, Etxalar, Ituren, Sunbilla, Elizondo eta Urdazubin eskainiko dituzte ikastaroak. Izen-emateko 686 557758 telefonora deitu behar da.

Azken urteetan gure eskualdean indarra hartu duen arte martzial japoniarra da kenpo-kai. Gorputza lantzeaz gain, defentsa pertsonalerako baliagarria da eta



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kenpo-kai arrakasta du eskualdean eta 2015ean nazioarteko topketa egin zen Beran.

borroka kirolean konpetitzeko aukera ere ematen du. Hain zuzen, es-

kualdeko hainbat kirolari Espainiako txapelkun izanak dira azken

urteetan eta maila handia eman dute nazioarteko topaketetan ere.

ERREMONTA → BURUZ BURUKO TXAPELKETA

# Urrizak bosgarrena lortu du Uterga menperatuta

30-19 gailendu zitzaion irailaren 9ko finalean

**TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE**

Buruz buruko Kutxabank 2017 erremonte txapelketa irabazi du Javier Urrizak. Irailaren 9an Galarretan jokaturako finalean 30-19 gailendu zitzaion Xanti Uterga doneztebarrari eta horrela, bosgarren txapela jantzi du Iruñekoak.

Markagailuak erakusten duena baino berdinduagoa joan zen partida. Lehen hiru tanto-

ak Utergak egin zituen eta launa berdindu arte aitzinetik izan zen. 6-7 aitzinetik ere izan zen Uterga, baina bortz tanto segidan egin zituen Urrizak, lau tantoko lehen tartea lortzeko (11-7). 15-9 ere aitzindu zen, baina behin baino gehiagotan bi tantura hurbildu zen Doneztebekoa (15-13, 16-14, 20-18) berriz ere markagailua berdintzea lortu gabe. Hortik aitzinera neke gehiago somatu zuen Utergak, pilota garbi batzuk huts egin zituen eta tanto bakar bat



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES

Markagailuak adierazten duena baino lan gehiago egin behar izan zuen Urrizak.

gehiago lortu zuen (23-19). Azkeneko zazpiak segidan egin zituen Urrizak, bosgarren txapela janzteko. Txapelkunak 16 tanto egin zituen pilotean eta 9 sakearekin. Lau pilota bakarrik galdu zituen. Utergak, berriz, 13 tanto egin zituen pilotean, eta 2 sakearekin. Bortz pilota galdu zituen.

Urriza pozik zegoen bere bosgarren txapelarekin eta markagailuak erakusten duena baino final gogorragoa izan

zela onartu zuen: «Partidaren erdi aldera momentu txarrak pasatu ditut, baina gaintzea lortu dut. Sakearekin asmatu dut eta horri esker lortu dut txapela janztea».

**XANTI UTERGA: «NAHI ETA EZIN ARITU NAIZ»**

Utergak bazekien dena ongi egin behar zuela irabazteko eta sakearekin ez zuen bere eguna izan. «Nahi eta ezin aritu naiz. Gehiago sarkatu du berak eta nik a-

rras gutti. Ongi erresatzen du gainera. 20-18 eta gero egin nuen tanto batean pilotak ihes egin dit eta gehiago asmatu du gero berak. Niri aldiz hankak ez zidaten berdin erantzuten. Ezin da barkatu Urrizaren aurka. Finala egun handia izaten da eta hori pozik egotekoa da. Disfrutatzen atera naiz, arriskatzera eta 0-3 aitzinetik paratu naiz. Ikusten nuen posible zela irabaztea, baina ezin izan dut».

PILOTA → JOXEAN TOLOSA TXAPELKETA

# Jon Olaizola txapeldun izan da Amezketan

18-16 irabazi zion finalean Ultzamako Etxeberriari

**TTIPI-TTAPA | LESAKA**

Amezketako Joxean Tolosa pilota txapelketa irabazi du Jon Olai-

zola pilotari lesakarrak. Irailaren 10ean Larrunari pilotalekuan jokaturako senior mailako finalean, 18-16 irabazi zion Peio Etxeberria ultzamarrari.

Partida gogorra eta orekatua jokatu zuten bi pilotariek. Pilotean 8 tanto egin zituen Olai-



ARGAZKIA: NEREA BAZTERRIKA

Pilotari lesakarrak Joxean Tolosaren eskutik jaso zuen txapela eta kopa.

zolak eta 10 Etxeberriak eta saketik 5 lesakarrak eta 2 ultzamarrak. 5 pilota galdu zituen Etxeberriak eta 4

Olaizolak.

Kadete mailako finalean, Unai Alberdi azpeitiarrak 18-2 irabazi zion Zeanuriko Beñat Etxei-

tari eta jubenil mailan, Julen Osa urnietarrak 18-13 irabazi zion Julen Egiuren azpeitiarrari.

# irailak 21 - urriak 5

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) edo 948 63 54 58

## Lehiaketak



ELIZONDO | 2017.09.23-24

### Pinriotar arrazako behien lehiaketa- enkante nazionala Elizondon

Bi egunez, pinriotar arrazako behiak ikusteko aukera izanen da. Baina aurten XXX. edizioa duen lehiaketa-enkante nazionala ere egingen da. Artisautza eta nekazaritza elikagaien azoka ere egingen da.

## Bertsokak



LEITZA | 2017.10.01

### Txapelketa Nagusiko hirugarren final- laurdena Leitza

Irailaren 23an Baigorri jokatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenbiziko final-laurdena eta hirugarren saioa Leitza egiten da urriaren 1ean. Sei bertsolari ariko dira 17:00etan Udal Kirolegian.

## Ospakizunak



ETXALAR-SARA | 2017.09.23

### Usategietako tradizioaren besta ospatuko da Lizarietan irailaren 24an

Sara eta Etxalarren arteko sinadura berrets bidenabar, egun osoko besta antolatu dute: merkatua, erakusketa, puzgarriak, bote luze partida, karrote txapelketa, dantzari saioa, bazkaria, herri kirolak eta dantzaldia.

## Solasaldiak

SARA

### 'Xamanismoa eta gaur egungo xamanismo osasuntsua' hizpide

Irailaren 16an 18:00etan.

ELIZONDO

### 'Eraikin historikoak Baionatik Iruñera Baztango Donejakueren bidetik'

Irailaren 29an Arizkunenean, Pepe Fernandez D'artas eta Jenaro Arretxea Iriarterekin. 19:00etan.

DONEZTEBE

### Liburu aurkezpena

Irailaren 29an Eli Badiolaren *Aita, aun quedan nueces* liburuaren aurkezpena, Rocio Ortizekin. 19:00etan Liburutegian.

## Tailerrak

ELIZONDO

### 'Osasuntsu zahartu'

Irailaren 20an eta 27an Osasun Zentroan, 10:30etik 12:30era. Izen-ematea Elizondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta.

### Menopausiaren inguruan

Urriaren 4an eta 11n Osasun Zentroan, 10:30etik 12:30era. Izen-ematea Eli-

zondoko Osasun Zentroan edo 948 581832ra deituta.

DONEZTEBE

### Zirku-tailerra

Urritik abendura. 4 urtetik goitikoendako. Asteartetan 16:30etik 18:30era.

## Ospakizunak

ITUREN

### Joaldunen Eguna

Irailaren 23an.

ETXALAR-SARA

### Usategietako tradizioaren besta

Irailaren 24an Lizarietako

lepoan: bote luze partida, karrote lehiaketa, hitzarmena, bazkaria, herri kirolak, dantzak, musika...

## Erakusketak

SARA

### Valerie Perienneren margo akrilikoaren erakusketa

Irailaren 15etik urriaren 1era Axuri-Arten, 10:00-12:00 eta 15:30-18:00.

## Dantzak

SUNBILLA

### Herriko taldearen jaialdia

Irailaren 22an 20:00etan frontoian.

## Ikuskizunak

ELIZONDO

### Imanol Ituinorekin magia ikuskizuna

Irailaren 27an 17:00etan Baztango liburutegi publikoan.

### Lupe Lekuona ipuin-kontalaria

Urriaren 4an 17:00etan Baztango liburutegi publikoan.

BERA

### Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna

Irailaren 30ean *Tipi-Tapa, Korrika!* ikuskizuna 17:30ean Eztegarra pilotalekuan.

## PROPOSAMENA

LESAKA

### 'Dena ez delako lana beti' egun osoko besta

Urriaren 15eko Nafarroa Oinez besta haundiaren atarian, egun osoko besta antolatu du Nafarroa Oinezek irailaren 23rako, *Dena ez delako lana beti* izenburupean. Musikariak, burdinaren erakusketa, toberak, giza proba erakustaldia eta probatzeko aukera, dantzaldia Gabenara taldearekin, berendu-afaria, eta gauez kontzertuak izanen dira Kalera, Autobus Magikoa eta Afu taldeekin.



## Kontzertuak

SARA

### Saiberri abesbatza elizan

**Irailaren 22an** 21:00etan.  
Sartzea 5 euro. 16 urtetik  
beheitikoek doan.

### Mendi Xola abesbatza

**Irailaren 29an** 21:00etatik  
elizan. Sartzea 5 euro.

ELIZONDO

### Lur Aretoaren irekiera

**Irailaren 23an** Mikel Sevilla-  
no eta JavilaZ 00:00etatik  
aitzinerara.

**Irailaren 30ean** 00:00etatik  
aitzinerara musika elektronikoa  
Montxo, Dario Nuñez, Javi  
Colina, Aimar, Asier Barburu,  
David Ibero, Jabier Alberdi,  
Zoktal, Benöa, RED3R eta  
musika komertziala: Pau  
Brull, Mikel Sevillano eta  
Mikel Almaraz.

BERA

### Jabier Perez de Azpeitia pianoan Miguel Olano tenore errioxarrarekin

**Irailaren 24an** Kultur  
Etxean, 19:00etan.

## Bertsoak

BERA

### Bertso-triki-pintxo-poteoa

**Irailaren 22an** 19:00etan  
Beralandetatik abiatuta.

LEITZA

### Bertsolari Txapelketa Nagusiko final-laurdena

**Urriaren 1ean** Agin Laburu  
Rezola, Iñaki Apalategi Asti-  
garraga, Julio Soto Ezkurdia,  
Oihana Bartra Arenas,  
Oihana Iguaran Barandiaran  
eta Unai Agirre Goia ariko  
dira 17:00etan kiroldegian  
eginen den saioan.

## Bestak

IGANTZI

### Herriko bestak

**Irailaren 23an eta 24an eta  
28tik urriaren 1era.** Xeheta-  
sunak gehigarrian.

## Nire aukera



Ibai IRIBARREN  
Urrozko gaztea

### «Urrozen nire tokia izan eta bertan bizi nahi nuke etorkizunean»

**H**erriko mutiko gazte normal bat, alaia eta kaskagor xamarrara» dela erranez aurkeztu du bere burua Ibaik, «nerea lortu arte gogor saiatzen naiz». Asteburuetan gehienetan lanean aritu beharra izaten du eta horregatik, tarte bat duenean, «neska eta alabarekin ahalik eta gehien egoteko» probesten du. Hala ere, datozen hilabeteetan salbuespena izaten da, «ehiza garaia hasten da eta hilabete horiek sakratuak izaten dira. Etxean ere badakite eta moldatzen gara...». Ehizarekin batera, futbola ere maite du «Osasuna zalea naiz» eta pare bat minutuz berarekin solasean arituta, bistakoa da bere herria ere zenbat maite duen. Urrozen sortu eta bertan hagituz gustura bizi dela dio, «zure herrian zaudela sentitzea, bizi guztia bertan egin duzunean... sentsazio berezia da». Herriko jendea eta giroa aipatu ditu eta baita parajeak ere, «Monozorro-zeko kaskotik Leurtza aldera dagoen parajea» da bere ustez txokorik politenetakoa. Hemendik gutxira, denboraldi baterako Zubietara bizitzera joatekoa bada ere «Urrozera bueltatzeko asmoa badut» gaineratu du berehala. Hain juxtu, horixe du amets: «Urrozen nire tokia izan eta bertan bizi nahi nuke etorkizunean». Aldaketa egitean gehien faltan botako duenaz galdetuta, «Urrozko tokiak, pertsonak eta giroa» aipatu ditu, «baina hurbil daude».

Laister hasiko diren bestetan agerian geratuko da Ibaik aipatzen duen giro berezi hori. Aurten, «bezperan eta herri bazkarian besta polit bat egiteko asmoa daukat, aspaldian ez naitzelako denbora gehiegi egon kuadrillakoekin». Duela bi urte izan zen aita eta horrek besta bizitzeko moduan aldaketa ekarri zuela ere aitortu digu «duela bi urtera arte, gehienbat lagun artean eta familiakoekin bazkariren bat egiten nuen baina alaba izan genuenetik, gehienbat familia giroa izaten dugu. Antolatzen diren aktibitate desberdinetaz disfrutatzen saiatzen gara: aizkora apustua ikusi, musean aritu, lagunekin tragoxkaren batzuk edan...». Eta biharamunean Monozorro-zeko kaskora igotzen bada ajea ere ttikiagoa izanen da agian.

«Aurtengo bestetan bezperan eta herri bazkarian besta polit bat egiteko asmoa daukat kuadrillakoekin».

DONEZTEBE

### Besta ttikiak

**Irailaren 22an eta 23an.**  
Xehetasunak 22. orrialdean.

URROZ

### Herriko bestak

**Irailaren 28tik urriaren 2ra.**  
Xehetasunak 27. orrialdean.

ANIZ

### Herriko bestak

**Irailaren 29tik urriaren  
1era.** Xehetasunak  
33. orrialdean.

## Azokak

SARA

### Ekoizleen azoka

**Irailaren 23an** ortziraletan  
16:30etik 20:30era frontoian.

**Urriaren 1ean** larunbatetan  
08:00etatik 13:00etara  
frontoian.

### Artisau, sortzaile eta merkatarien azoka plazan

**Irailaren 25ean** 09:00etatik  
aitzinerara plazan.

ELIZONDO

### Piriniotar arrazako behien lehiaketa-enkante nazionala

**Irailaren 23an eta 24an.**  
Xehetasunak 35. orrialdean.

## Lehiaketak

BERA

### Pintura lehiaketa aire zabalean

**Urriaren 1ean** 16 urtetik  
goitikoentzat.

## Kirol-hitzorduak

LEITZA

### Leitzulia

**Irailaren 30ean.** 42 kilome-  
troko luzera eta 1.400 metro-  
ko desnibel positiboa duen  
itzulia. Xehetasunak 31. or.

IGANTZI

### Aizkora Txapelketako finala

**Irailaren 30ean** Nafarroako  
III. Mailako Aizkolari Txapel-  
ketako finala, 17:30ean.

**ETXEBIZITZAK****salgai**

**ELIZONDO.** Akulegi ka-  
rrikan 2 logelako pisua  
salgai. Prezioa: 60.000  
euro. ☎646 774117.

**ITUREN.** Neurri desber-  
dinetako apartamentuak  
hagitz prezio interesga-  
rrian salgai. ☎948 451337  
/ 667 275013.

**ANZABAL**  
**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA,  
ULTZAMA eta  
IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak,  
partzelak, baserriak,  
bordak, lokal komertzia-  
lak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta  
BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagarriak base-  
rriak, bordak eta  
lurrak behar ditugu.

**URDAZUBI**

- Etxe berri bat salgai,  
moleztatua. 2000  
m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**DONEZTEBE**

- **Aukera:** 102 m<sup>2</sup>ko  
pisua salgai. Egoera  
oso onean dago. 3  
logela, jangela, egon-  
gela, 2 komun, sukala  
de moleztatua eta  
17 m<sup>2</sup>ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

**LESAKA.** Herri sarreran  
etxe bifamiliarra salgai. 2  
solairu, 5 logela, 3 komu-  
na, garajea eta jardina.  
Oso egoera onean. Sal-  
neurri negoziagarria.  
☎618 188300.

**ELIZONDO.** 104 m<sup>2</sup>ko  
pisua salgai Saskaitz  
plaza 4. zenbakian. Hor-  
nitua. Prezioa: 120.000  
euro (tratuan zehazte-  
ke). ☎658 758173.



**BERA.** 80 m<sup>2</sup>ko pisua  
salgai. Lehenengo so-  
lairuan, erdigunean ko-

**MERKATU TTIKIA****948 63 54 58**

info@ttipi.eus edo erran.eus

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA  
**ARGAZKIAREKIN** JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**  
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta  
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako ES86 3008 0080 5607 0330 4329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz  
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

katua, Alzate karrikatik  
hurbi. Guztiz berritua  
dago, sukaldea estrei-  
natu gabe. Berogailua  
eta isolamendu ona di-  
tu. Komunitateko gas-  
tu gutxi ditu, atezaina-  
rekin. ☎608 777926.

**ETXEBIZITZAK****errentan emateko**

**LESAKA.** Etxebizitza  
errentan emateko. Iraile-  
tik aitzinera. Irakasleen-  
tzako edo langileentzako.  
☎678 855056.

**IRUÑEA.** Pisua errentan  
emateko. Lau logelakoa.  
Oso egoera onean. Uni-  
bertsitate eta ospitaleen  
ondoan. Komertzio au-  
nitz ondoan. ☎607  
924379 / 670 303520.

**IRUÑEA.** Buztintxuri au-  
zoan ia berria dagoen 3  
logelako pisua errentan  
emateko. ☎660 541278.

**BERA.** Pisua errentan  
emateko. Hiru logela, bi  
komun, sukaldea, egon -  
rekin.

gela eta terraza eguzki-  
tsuarekin. Orain dela gu-  
titi berritua. ☎660 984215.

**LURRAK/ORUBEAK****salgai**

**ELIZONDO.** Gorramen-  
di karrikan (Merkatuzelai  
urbanizazioa), eraikitze-  
ko 530 m<sup>2</sup>ko lursaila sal-  
gai. ☎636 513840.

**LANA****eskaintzak**

**ORONÓZ-MUGAIRI.** Ormigo  
kamioi bat gi-  
datzeko gidaria behar da.  
☎948 326520.

**URDAZUBI.** La Koska  
jaketxean zerbitzaria be-  
har da. ☎948 599042  
(09:00-17:00).

**LESAKA.** Atxaspi hote-  
lerako garbitzailea behar  
da. ☎673 339920.

Gipuzkoako zaldien ga-  
rraiolarako enpresa batek  
**garraiolaria** behar ditu.  
Estatu mailako eta atzerri-

rako garraioan aritzeko.  
Euskaldunak, trailerreko  
karnetarekin, aziendekin  
ibiliak eta lanerako gogo-  
a dutenak. ☎652 706820.

Euskal Herriko argi ko-  
mertzializadora batek  
Baztanen eta Nafarroan  
lan egiteko **komertzia-  
lak** behar ditu. ☎602  
409716 (Alberto).

**ELIZONDO.** Bidegain  
arraindegian berehala la-  
nean hasteko prest da-  
goen langilea behar du-  
te. Lan finkoa, astearte-  
tik larunbatera goizez arit-  
tzeko. Ezinbertzekoa da  
gida-baimena izatea. In-  
teresatuek deitu, denda-  
ra joan edo curriculum  
bidali: info@pescadosbi  
degain.com. ☎606  
585163/ 948 580496.

Eskualdeko enpresa bat  
**saltzaile** baten **bila** da-  
bil. Euskaraz jakitea eta  
eskualdekoa izatea kon-  
tuan hartuko da. ☎607  
726548.

**Obrako teknikoa** behar  
da iparraldean lan egite-  
ko. Frantsesez dakiena.  
☎639 708414.

**ZUGARRAMURDI.** Ber-  
tako ile-apaindegi bate-  
an lan egiteko langilea  
behar da, esperientzia  
duena eta frantsesez da-  
kiena. ☎948 599079/ 619  
372546.

**LANA****eskariak**

**Neska** bat lan bila, adi-  
nekoak edo haurrak zain-  
tzeko prest, interna be-  
zala ere bai. Bertze edo-  
zein lanetan aritzeko ere  
prest. ☎631 779724.

**BORTZIRIAK-IRUN.**  
Neska eskaintzen da adi-  
nekoak zaintzeko, baita  
garbiketa lanetarako ere.  
Konfidantzakoa. ☎686  
947418.

**BORTZIRIAK-IRUN.**  
Mutila eskaintzen da edo-  
zein lanetarako. Ordute-  
gi zabala. ☎686 947418.

**Umeak zaintzen** espe-  
rirentziadun neska lana  
behar du. Bi urteko espe-  
rirentziarekin zenbait  
Haur Eskoletan, bai eta  
udan zehar haurren zain-  
ketan ere. Iraila erditik  
umeren bat zaintzea be-  
har izanez gero, deitu fa-  
borez. ☎675 336624.

**Emakume langile** eta ar-  
duratsua naiz. Adineko-  
ak edota haurrak zain-  
tzen, garbiketa lanetan  
edo ostalaritzan lan bila  
nabil. Esperientzia adi-  
nekoak zaintzen. ☎644  
778212.

**Adinekoak zaintzen** or-  
duka edo interna beza-

**BASERRIA**DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**  
(irailaren 1etik 8ra bitarteko prezioak)**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 42 €

**Zerri gizena**  
1,410€ kiloak.

**Zerramak:**  
0,740 € Kg/bizirik.

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/k Kanal

**Extra** 4,32

**1.koa** 4,10

**2.koa** 3,90

**Urruxak:** €/k Kanal

**Extra** 4,34

**1.koa** 4,20

**2.koa** 4,00

Oharra: Prezioak 180-220  
Kg. kanalean pisatzen du-  
ten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 120,00  
idixkoak 210,00

**Aretze nabarrak:**  
urruxak 140,00  
idixkoak 185,00

**Zaldikoak:** €/k  
Sortuberriak: 3,29/3,39  
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

**Bildotsak:** €/k  
6-8 kilokoak: 8,20/8,80  
8-10 kilokoak: 6,70/7,20

la, haurrak zaintzen eta garbiketa lanetan lan bila nabil. Interesdunak deitu. ☎693 284860.

**Adinekoak zaintzen** esperientziaduna, haurrak zaintzen edota garbiketa lanetarako lan bila nabil. Adinekoak zaintzeko orduka edo interna bezala prest. Behar baduzu deitu. ☎635 296717.

**Mutila**, obran edo adinekoak zaintzen lan bila. Behar izanez gero deitu. ☎651 923579.

**Berako emakume arduratsua** lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen eta garbiketaren esperientziaduna. Lan horietan edo bertze edozein lanetan interesatua. ☎667 958488.

**Gizonezkoa** lan bila. Ostalaritzan sukaldari laguntzaile edota zerbitzari lanetan aritzeko prest, baita adinekoak zaintzen ere. ☎693 463186.

Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko **emakumea** lan bila. ☎693 474983.

Adinekoak edota haurrak **zaintzeko** eta **garbiketa** lanetarako lan bila. ☎644 963709.

Adinekoak zaintzen interna edo orduka, haurrak zaintzen edota garbiketaren lan eginen nukkeen **emakumea** naiz. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎635 296717.

**ZERBITZUAK**  
psikoanalistak

**ROSA BELZUNEGI**  
PSIKOANALISTA  
Kontsultarako eskatu ordua  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO

**ZERBITZUAK**  
zurgindegiak

**ARANTZA**  
Zurgindegia.....  
• Klase guzietako zurgin lanak  
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe  
Joxe Miguel Errandonea  
Tel: 948 634 068 - 647 810 144  
Gorritibaita - ARANTZA

**MOTORRAK**  
tailerrak

**INDAUTO TAILERRAK** (ELITE)  
Mekanika | Elektrizitatea  
Pneumatikoak

**Peugeot Partner Outdoor**  
1.6HDI 92 zaldi 53.000km 2014 urtekoa

**Peugeot Partner**  
1.6HDI 75.000km 2013 urtekoa  
alboko atearekin

Pol. Ind. Ordoki ARIZKUN - www.indauto.es  
T. 948 453 488 - M 675 324 940

**GANIX**  
Tailerra

948 63 06 69  
Zalain Pol., 11 - BERA  
EUROMASTER zegoen lekuan

**MOTORRAK**  
salgai

**ARANTZA.** Erremolkea salgai. Hagitz ongi zaindua eta gutti erabilia. Kotxean sartzen ez dena eramateko egokia. Barneko neurriak: 115x96x60. Kanpoko neurriak: 120x135x60. Luzera osoa: 2,270. Dokumentazio guziarekin. ☎608 174510.



**Renault Kangoo** 1.5 DCI autoa salgai. 6.600 euro. ☎616 198016.

**Jimny** 1.3 autoa salgai, 16v. 105.000 km. Egocera ezin hobean. Konpromisorik gabe probatu daiteke 4.700 euro. ☎630 221208.



**AVIA**  
www.doneztebe.com

**E.S. SANTESTEBAN**  
Leitzako errepeidea, 49 | DONEZTEBE | T. 948 451 679

**KOTXE GARBITEGI BERRIA!**  
**ShineTecs®**

**FURGONETA GARBITEGI BERRIA!**  
2,60 m

**"KONPONTZE EFEKTUA"**  
duen pintura babeslearekin

> "Acryliconic" formula patentatua. Argizaria baino hobea.  
> Kapa babeslea indartzen du garbiketa bakoitzean  
> Distirak denbora gehiago irauten duela bermatzen du

2,60m bitarteko furgoneta edo kotxea garbitu gurean!

hemen agertu nahi duzu?  
egin zure erosketa [erran.eus](http://erran.eus) en

**IRAGARKIA**  
2 aldizkaritan eta interneten  
**10**  
EURO

**Ford Focus** autoa salgai, 1,6 tdc, gasolioa, 115 zaldi. Egoera arras onean eta extra askorekin. ☎699 375558.




**Citroen Xsara VTS 2.0** autoa salgai, HDI, 110 cv, diesela. 3 atekoa, 2003koa, 194.000 Km. Oso ongi zaindua. ☎646 762383.



**ANIMALIAK**  
salgai

7 hilabetetako Pointer arrazako **ehizako zakurkumeak** salgai. Aita eta amak genetika oso ona. ☎630 221208.



**Zakurrei ilea mozteko makina** salgai. KM2, 45 Veko motorra, 2400/3000 RNP. Profesionala. Beroztzen ez dena. Bi aldiz ibilia bakarrik. ☎606 586603.

**ANIMALIAK**  
opari

**Bi katakume** oparitzeko. Siamesa (emea) eta pinttokaria (arra). ☎650 797669.

**GOIZUETA.** Katakumetak oparitzeko. ☎619 988383.

**DENETARIK**  
salerosketak

**Altzairuzko sei fregadera** salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

**ORONoz.** Egurra xehetua salgai. Paga eta haritza. Etxera eramanean da. ☎676 242520.



**ELIZONDO.** Ohe artikulatua eta eskailerak goitzeko aulki motorduna salgai. Prezio onean. ☎948 581170.

**KATEA BIKE**  
2. eskuko bizikletak

Kanthonberri, 1 | BERA  
T. 948 631 218  
kateabera@telefonica.net

**ARANTZA.** Taxi plaza salgai. ☎617 296458.

**Garajeko ate batiente**a salgai, oinezkoentzako atearekin. Neurriak: 4,50 metro zabal eta 3,65 metro altuera. ☎619 913375.



**LEGASA.** Sukalde ekonomika kalefaktora salgai. ☎669 185858.

**LEGASA.** Egurra lehortzeko gasolina makina errentan emateko. ☎669 332549.

**Mahaia salgai bere sei aulkiekin.** Hagitz egocera onean. 150 euro (Prezio negoziagarria). ☎685 764400.



744 484 361  
ttipi-ttapa

# PLAZAN BAZAN



## MARIPURTZIL ETA PELLOZIRI

### MINAAAAA!!!!

Ai, ene! Neskato pinpirin hau Xune da, eta bakarren batek hozka egin dio besoan.

**Ikusi duzu zer-nolako hozkal!**  
Aurreko hortz guztien marka utzi dio etal! Nor demontre izan ote da, Elaia? Oier? Lagundu irakasleari nor izan den asma-tzen, bi hitz egin beharko dizkio eta.



Horra hemen hozkaren marka, lupaz handituta. Horiek bai hortz zorrotzak!



Nik ez dakit zer gertatu den, meriendarako marmeladaren bila joan naiz. Ummm! Bai goxoal!



Ui, ui, ui, nik kasu egitea besterik ez nuen nahi...



\* Nik nola egingo nion ba hozka! Ezinezkoa da: burdin artean preso ditut hortz guztiak!

Egilea: Garbine Ubeda (Aiuurri)

## INTERNETEN ERE BAI !




[plazanbazan.eus](http://plazanbazan.eus)

KIOSKOA - JOLAS-PARKEA  
AZOKA - UDALETXEA - IKUSKIZUNAK  
IPUINAK - KOMIKIAK - MARRAZKIAK




Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)





## BIKIAK

Zazpi irudi hauek berdinak dirudite baina ez dira berdinak.  
Aurki itzazu elkarren kopia diren bi irudiak



Horra, Fermintxo bihurritxo,  
zuretzat pila bat kroketa goxo.  
Utzi behingoz jolasak txakurtxo,  
Eta zatoz galdu gabe, kontxo!



Lagundu txakurrari  
bidea aurkitzen.

PUBLIZITATEA



**Baztango  
Udala**

Izen-ematea:  
**Irailaren 25etik 29ra**  
EUSKARA ZERBITZUA: **948 580 006**  
euskara@baztan.eus

### HAURRENDAKO AISIALDI ESKAINTZA

**ELIZONDO (LH 1-6)**  
Larunbatero  
17:00-19:00  
Arizkunenea Kultur Etxean  
60 €

**ORNOZ (LH 1-6)**  
Bi larunbatean behin  
16:00-19:00  
Ornozko Eskolan  
30 €

uritik ekainera **EUSKARAZ**

# urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,50€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekea; 4) erran.eus bitartez



Doneztebeko **HEGOI GARTXITORENA ZABALETAK** irailaren 9an 9 urte bete ditu. Urte askoz Doneztebeko familiaren partetik.



Doneztebeko **IRAI LOPEZ**ek urtea beteko du irailaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik, bereziki Oier anaiairen partetik.




**OIER TABERNA LASCANOK** urtea bete du irailaren 20an. Zorionak familia guztiaren partetik. Aunitz matte zattugu nene!



Urdazubiko mutil jator hauei, **ZUHAITZ BAZTERRIKA MASKOTENA** eta **PABLO IRAZOKI OLAIZOLAK** 15 eta 13 urte beteko dituzte urriaren 7an eta 10ean. Zorionak eta aunitz urtez!! Landibar auzoko kaxkotik.



Goizuetako **URKI LARRALDE AROTZENAK** bi urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak pottoko eta muxu asko etxekoan partetik!



Sunbillako **OIERREK** irailaren 16an urteak bete ditu. Aunitz urtez! Gerendiain, Le-kunberri eta Sun-billako familiak eta bereziki gura-soak eta Argia.



Aresoko **ENARA BARANDAIN MITXAUSEK** 3 urte beteko ditu urriaren 3an. Muxu pottolo pottoloak Bi ahizpetako bihurri tikiari!



Aunitz urtez Az-pilkuetako **MARIA JESUS MENDIBURU**ri irailaren 29an 90 urte beteko dituelako. Seme-alabak, bilobak eta birloben partetik. Muxu pila!



**EKHI JAURENA EIZAGIRREK** urriaren 1ean 3 urte beteko ditu. Zorionak eta aunitz urtez attatto eta amattoren partetik!! Mila muxu!!!



Igantziako **UNAX URTEGI RODRIGOK** 6 urte beteko ditu irailaren 29an. Zorionak eta muxu potolo bat familia guziaren eta bereziki zure arreba Izaroren partetik!!



Goizuetako **ANARTZ LUJANBIO NARBATEK** 9 urte beteko ditu irailaren 25ean. Harro nago urte hauetan egoera ezberdinei nola aurre egin diezun, seme bikaina izateaz gain, pertsona bikaina zara, eta segi horrela. Bihotzez maite zaituen amatxoren partetik, zorionak!



Goizuetako **ANARTZ LUJANBIO NARBATEK** 9 urte beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak Nahia, Elaia eta Beñaten partetik. Prestatu berendu goxo goxoa, eta hortxe izango gara zurekin ospatzeko. Zorionak! Maite zaitugu!



**ENEKO IRIARTE ITURZAETAK** urteak bete zituen irailaren 14an. Aunitz urtezzzzzz Enekobix!!!! Etxeko guzien partetik!! Aupa Real!!!



**ANAITZ VICENTE OÑSALO** leitzarra irailaren 7an jaio da. Ongi etorri familiara! Muxu haundi bat Aresoko Irai eta Aret lehengusuen eta izeba-osaben partetik.

# DENBORALDI BERRIA!

www.lurelizondo.com

**view point @Lur**  
IRAILAK 23 - 00:00-06:00  
DEBALDE  
**MIKEL SEVILLANO**  
**JAVILAZ**  
DOAN

**Lur**  
ELIZONDO | BAZTAN

Zatoz eta ongi pasa!!

IRAILAK 23  
00:00-06:00

**OPENING TECHNO PARTY**  
**SABADO 30SEP**  
**Lur**  
ELIZONDO | BAZTAN  
MAIN ROOM: MUSICA ELECTRONICA  
**MONTXO** BDAY & SOLDIERS  
**DARIO NUÑEZ** BACCANALI IBIZA  
**JAVI COLINA** WE PROJECT  
AIMAR • ASIER BARBURU • DAVID TIBERO  
JAVIER ALBERDI • 20CTAL • BENÓ • RED3P  
SECOND ROOM: MUSICA COMERCIAL  
**PAU BRULL** PACHA  
**MIKEL SEVILLANO** ROSTER  
**MIKEL ALMARAZ** SINGUL  
DECORACION ESPECIAL LUVIA DE HINCHABLES  
APERTURA 00:00 • ANTICIPADA+COPA 10€ • TAQUILLA+COPA 12€

IRAILAK 30  
00:00-07:00

# DISFRUTA EN EL EUSKALTEGI GOZATU EUSKARA!



Ver video  
Bideoa ikusi

## Matricúlate Izena eman ezazu

Información sobre los centros y ayudas económicas:  
Euskaltegi eta laguntzei buruzko infomazioa:

### Antolatzaileak/Organizan

Udalak/Ayuntamientos: Aoiz/Agoitx, Ansoáin/Antsoain, Aranguren, Valle de Arce/Artzibar, Villava/Atarrabia, Auritz/Burguete, Barañain, Basaburua, Berrioplano/Berriobeiti, Berriozar, Burlada/Burlata, Valle de Egúés/Eguesibar, Erro, Esteribar, Etxauri, Galar, Puente la Reina/Gares, Imotz, Pamplona/Iruña, Estella-Lizarra, Luzaide/Valcarlos, Odieta, Cendea de Olza/Oltza Zendea, Orkoien, Tafalla, Huarte/Uharte, Ultzama, Zizur Mayor/Zizur Nagusia. Mankomunitateak/Mancomunidades: Sakana, Iruñe/Iruñe, Valdizarbe/Izarbeibar, Batzorde Nagusiak/Juntas Generales: Aezkoa, Roncal/Erronkari, Salazar/Zaraitzu.

# 948 012 012

[www.euskaraikasi.nafarroa.eus](http://www.euskaraikasi.nafarroa.eus)  
[www.aprendeusquera.navarra.es](http://www.aprendeusquera.navarra.es)



Nafarroako  Gobierno  
Gobernua de Navarra





ARAUTUTAKO KILOMETRAJEA  
KILOMETRAJE REGLADO

#casolina17



5 & 10 KM.

# IV. CARRERA SOLIDARIA NAVARRA

IRUÑA-PAMPLONA

# IV. NAFARROAKO LASTERKETA SOLIDARIOA

[www.carrerasolidarianavarra.com](http://www.carrerasolidarianavarra.com)

2017KO URRIAK 8 DE OCTUBRE DE 2017

SALIDA: P. SARASATE, 20 - 11H.

IRTEERA: SARASATE P., 20- 11ETAN

INSCRIPZIOAREN DIRUBILKETA **ANFAS**EN ALDE IZANGO DA  
LA INSCRIPCIÓN SERÁ ÍNTEGRAMENTE PARA AYUDAR A **ANFAS**

Rock<sup>the</sup> sport



30  
1987-2017  
upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

banka kooperatiboa



LABORAL  
kutxa